

**FITO RODRIGUEZ**

# **Justizia Interditaren**

## **Poetika**

**(Gertatutakoaren Errelatoaz)**



*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren  
diru-laguntza jaso du*

© Fito Rodriguez

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2013ko maiatza

ISBN: 978-84-939967-9-6

Lege-gordailua: SS-701-2013

Irudiko azala: Fito Rodriguez

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

Banatzaileak:

BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)

Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utrusque.com/utrusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

*Lexori,  
artez eta adorez,  
lagunak kritikatzeko  
eta kritika laguntzen  
irakatsi zigulako.*



Harriaren eta mailuaren poetak horrelako behin batean bizi zuen egoerak latza eta itsua, “Zuzenbide debekatua” terminoetan adierazi zigun, hura haritzat harturik (**hizki beltzak** testuan), txirikordatuko ditut gertaturiko ustezko espainiar Transsizoaz datozen hurrengo gogoetak.

*Fito Rodriguez*



*BATEKO URREA: Hans Fallada.*  
*Gizonaren aurrean Faniko Fallada*  
*Zerua laudatzeko badauka parada*  
*Begi nabarrez egin nuen gurdikada*  
*Eman zidan neroni gogorrik bultzada*  
*Hau da besarkada*  
*Bere begirada*  
*Oso ederra da*  
*Dirudi enada*  
*Parean dakuskit bi gurutze gamada.*





## TRANTSIZIOAREN JOKOA

*Kleiner Mann - was nun?*, Gizontxo hori... orain zer? izkiriatu zuen Hans Falladaren atzean ezkutatzen zen *Rudolf Wilhelm Friedrich Ditzén* idazleak nazionalsozialismoaren gorakadaren garaian, eta ni, nire motzean, horrela sentitu nintzen Franco hil ondoren, kartzelatik irteterakoan, zer pentsa ere ez nekiela, alegia.

Izan ere, Francok berak sustaturiko erregimen politikoaren moldapen gisara ezagutu zen Trantsizioa deritzanaz asko hitz egin eta idatzi izan da baina oso gutxi, ene ustez, bizitako justiziaren nahiz injustiziaren ikuspuntutik. Hau da, niri bezainbeste euskaldun askori orduko faxismoak eragindakoa eta ordutik honako espainiar demokraziaren justiziak ekarritakoa, berdina ez izan arren, kalte antzekoak izan direla konturatzerakoan, zein puntutaraino hitz egin daiteke frankismo erregimenaren Trantsizioaz?

Trantsizioa, izatekotan, mito bat izan baita<sup>1</sup>, Konstituzioaren tabua ekarri zuena eta gaztelaniazko kultura politikoan funtsezko metafora bat egungo Espainia ulertarazteko. Kontzeptua ez de-

nez, ideia baizik, horri buruz pentsatu ahal izateko bizitakoaren istorioak behar ditugu, nirea, adibidez...<sup>2</sup>

Nola pentsatu kontzeptua ez denaz, eguneroko mintzairaz, ikurrez, ikonoez, alegoriez, metaforez edota mitoez? Nietzschek erakutsi zigun gogamenerako bidea bizipenetatik, oroimenetik, hizkuntzatik edota literaturatik abiatu pentsatzen. XX. mendeak, berriz, ekarritako “hizkuntz itzulia” deritzanak Historia ulertu ahal izateko istorio desberdinak eskuratzeko premia aldarrikatu zuen<sup>3</sup>. Horretan nago ni, hizkuntza jakin batean pentsatu egiten dugulako eta denbora jakin batean bizi garelako, eta bizitzak, berez, biak behar dituelako elikatzeko. Bizitzaren denbora, Munduaren Historia, oroimenen istorioez eraikitzen da, eta hizkuntza, beraz, gogamena garatzeko, bizitza ulertzeko eta mundua ikertzeko funtsezko baliabidea dugu.

Trantsizioa deitu zuten garaia gogoratu nahi dut berbaldi honetan. Orduko istorioak oroitu, Historia ez baita oraingoz itxita eta, ondorioz, amnesia partez nire anamnesia azaldu nahi dut, orain urrats politiko logiko gisa erakutsi nahi izan duten horren atzealdea agerian uzteko; ez bereziki iragana berridazteko, “munduaren bertsio bat baino gehiago dagoenez, ariketa literario honek mende hau pentsatu ahal izateko pizgarria ematen digulako”<sup>4</sup> baizik.

Izan ere, nire aburuz, Trantsizioari buruz ez da mintzatu justizia poetikoaren ikuspuntutik. Gutxitan heldu zaio gaiari bizipenen ikerketatik eta, are gutxiago, bizipen haien gogamenetatik, Hans

Falladaren edota Walter Benjaminen ahalegin intelektuala nazismoari buruz<sup>5</sup> ez da gauzatu gurean balizko frankismoaren trantsizioaz aritzerakoan, salbuespen batekin, beharbada, Gabriel Arestiren izkribu poetikoarena: bera lagun, ekin nahi diot gaiari.

Batzuen ustez, Trantsizioa “azken puntua” ren lege bat ekarri zuen garaia izan zen beste batzuek, aldiz, erregimen politikoa aldatu ahal izateko aukera historikoa izan zela uste dute; gizartea berdiskidetzeko sasoia izan zela ere adierazi du baten batek: “bi gurutze gamada, oso ederra, hau da besarkada”... hori dena nola kontatu duten aipatu ikuspegi desberdinen arabera jakin behar da irakurtzen, hortik begiratzea dut hemen xede.

Beraz, balizko Trantsizioaren balantzea egin nahiko nuke hemen; edo, hobeto esanda, zurekin batera egin, irakurle hori, eta, bide batez, ordutik honako bizipenak eta gogoetak konpartitu. Izan ere, oraindik orain berriro hasi da zabaltzen Euskal Herria garaikidearen kontakizuna, narrazioa edo historia modu berri batez berridatzi eta azaldu behar dela, gertatutakoaren errelatoa egun bizi garen garaira egokitu nahian. Horixe bera ikusi izan dugu buru nahiz aburu desberdinetatik planteatzen. PSOEek Patxi Lópezen bidez proposatu izan du, baita ildo bereko beste eragile politiko zein sozialek ere (talde mediatikoek eta, bereziki, PRISAk berak, kasu) proposatu izan dute.

Ildo beretik, EITBk antzekoa egin izan du, hor dago Iñaki Gabilondok Trantsizioari buruz

zuzendutako programa sorta, hala Cuatro katean nola ETB2n bertan, hain zuzen ere.

Aurretik, jakina, espainiar telebista publikoak eta handik ekarritako lumadunek ere gai berari heldu zioten<sup>6</sup>

*ZAZPIKO URREA: Pio Baroja.*  
*Pio Baroja jauna gizon pausosoa*  
*Bere gogoa izan da guztiz porosoa*  
*Kontran ibili zaio Eliza osoa*  
*Eztakigu oraindik nor den tranposoa*  
*Dirudi zozoa*  
*Txori temosoa*  
*Eta amorosoa*  
*Kuzinan gozoo*  
*Txillardegik eztio dela briosoa.*



## KONTAKIZUNAK ETA ETORKIZUNAK

Eta zergatik kontatu behar dute orain modu berri batez denok ezagutu izan duguna? Zertarako TVEren “Cuentamé” bezalako telebisio serieak?<sup>7</sup>

Zer dela-eta kontatu behar izan zuten Trantsizioa, Trantsizio izendapena eman eta, nolabait, narrazio moduan azalarazi Franco hil ondoren gertatutako guztia?

Gainera, aipatu garaiaren inguruko diskurtsoen barne-koherentzia berri bat bilatuz, nolabaiteko kontsentsu garaikidea, ohiko eragile politiko-ideologiko guztien artean?

Eta Trantsizio berregituratutako hori, bada, zein epetan banatu, zer urtetik zer urte arteko epea eman, bada, balizko Trantsizioari?

Hori guztia argitzen eta finkatzen den bitartean, nire ustetan, bada garaia, ordua heldu da, us-tezko Trantsizio hori berrirakurtzeko, birplanteatzeko eta garai hartan bizitakoaren arabera, agian, behar bezalako kritika edo autokritika politikoa ere egin ahal izateko aukera zabaltzeko.

Bestalde, sasoa era bada, ene ustez, Trantsizioari birbegiratzeko, zein puntutaraino orduan

eman izan zizkiguten istoriek guretzat balio ote duten ikusteko, eta orobat hausnartzeko Euskal Herriak bere antolaketa politikorako Trantsiziorik lortu ahal izateko baliagarriak ote dituen.

Edota alderantziz, hau da, baliesteko Trantsizioa izan ote den soilik frankismoak sortutako istorio bat, ipuin hutsala, eta Trantsizioa bera ere ez ote genukeen beste modu batez ulertu beharko eta ondorioz, orain gertatzen ari den guztia horren arabera birpentsatu.

Beraz, Trantsiziorik egon al da?<sup>8</sup> Eta izatekotan, zenbat? Ba al dago lehenengo Trantsizioaren eta bigarren Trantsizioaren artean bereizterik eta, orduan haietariko bakoitza noiz hasi eta noiz bukatu ziren?

Agian, Trantsizioa bera izan baita kontu bat, kontatu ziguten antzezpen interesatua bakarrik...<sup>9</sup>



*BATEKO KOPA: Luigi Pirandello.  
Pirandellok eztaki nola den brioa  
Ezta beraren obrak zer den herioa  
Lore galantegia baita lirioa  
San Josepek gordetzen digu usarioa  
Horri darioa?  
Ederra trioa!  
Eta amorioa?  
Ezta karioa!  
Konprenitzen nauzua? Ze misterioa!*



## TRANTSIZIOAREN MISTERIOA

Nolabait esanda, Trantsizioaren misterioa argitze aldera bilana egiteko garaia heldu zaigu. Urte batzuk igaro dira, orain badaukagu kontatzerik aurretik ezin izan genuena. Gainera, badauzkagu beste esperientzia batzuk, gureak ez direnak, baina gurekin batera herri askapenen prozesuetan munduan zehar zabaltzen joan direnak. Eta badauzkagu horrekin batera, kontakizunak azaltzearren modu berriak erabili ahal izateko aukerak ere.

Eta abiatuko naiz.

Ohiko historietan Trantsizioa deitzen den lehenengo urtea izan zen hartan, 1976an, Erreforma Politikorako Erreferenduma egin zen urtean (nahiz eta aurrerantzean horren balioa ere kolokan jartzen saiatuko naizen), ni kartzelan nengoen, eta barrutik ikusi nuen Francoren erregimenaren erorketa.

Geroxeago, Amnistiaren Legeak ekarrita, aldaketa handia bazetorrela ikusi nuen. Baina, dagoeneko, 36 urte pasatu dira garai hartatik, eta bide horretatik iritsi gara jada oraingo ziklo politikoaren aldaketara, non, independentziaren hautuaren aurrean, funtsezkoa zaigun gure esperientziatik behar bezala ikasi ahal izatea, edo ikasitako

lezioak hemendik aurrera aplikatu ahal izatea, aurrerantzean kontakizun haiek, behintzat, berriro ez sinesteko.

Hori dena gauzatze bidean, gogoeta hau gartzen joateko, erabiliko ditudan bibliografia eta aipu batzuk erreferentzia izango dira, eta, bukaeran jarriko baditut ere, oinarri-oinarrian daude, hau da, hasiera-hasieratik erabiliak izan direla aitortu behar dut, nahiz eta irakurketa erraztearen alde beti ez ditudan agerian emango.

*HIRUKO KOPA: Tomas Meabe.*  
*Frantzesek alemanek euskaldun arabe*  
*Maitatu behar dute Tomas de Meabe*  
*Izan zen zuhurtasun zoroen mirabe*  
*Eta zorakeria zuhurraren jabe*  
*Poliki suabe*  
*Ezertto jan gabe*  
*Ezeren herabe*  
*Pobrearen habe*  
*Esperantza gozoak direkien labe.*



## GARAI ITXAROPENTSU HAI EK

Baina has gaitezen planteatzen gakoa: litekeena da inorako Trantsizio politikorik egon zela bainoago, frankismoaren eboluzio bat besterik ez izatea bizi genuena. Franco hil ondoren (Franco 1975ean hil zen), suertatu zena, “frankismo egokitua” izan zela adieraztea egokiagoa izan daiteke<sup>10</sup>.

Frankista zen erregimen politikoa nola joan zen eboluzionatzen azaldu nahi dut eta, neurri handi batean Euskal Herrian gertatzeaz zegoen erabateko aldaketa, hau da, nolabaiteko iraultza, kalean zegoena<sup>11</sup>, nola geratuta geratu zen. Hala-ber, garai itxaropentsu haiek, ikuspegi estatalista edo balizko Trantsizioaren ipuinaren azpian planteatzen zen ideiarekin nola gelditu ziren zapuztuta.

Garai hartan esaten zen erreforma ala haustura zela dilema, hau da, bazegoela nolabaiteko binomio bat, etorkizunaren gakoa laburtzen zuena, edo frankismoarekin haustea edo frankismoaren erreformarekin bat egitea.

Niri hori bizitzea tokatu zitzaidan Carabanchelgo kartzelan, adibidez, garai hartan frankismoaren alternatiba izan ziren izenak ezagutzea: Marcelino Camacho, orduan indartsua zen CCOO

sindikatu burua<sup>12</sup>, Ramón Tamames, garai hartan PCko zuzendaritzan zegoena. Eta ildo honetatiko anekdotatxoa izan zen, adibidez, nik *El País*eko lehendabiziko alea Carabanchelen irakurri nuela, eta *El País* horren aldeko lanean, edota parte hartzen zuten batzuk, berriz, nirekin zeuden atxilo, orduko barne ministroa zen Fraga Iribarne, denon kartzeleroa alegia, ekimen bereko bultzatzaile izan zen bitartean.

Nahasketa handia zegoen, beraz, eta planteatzen zen erreforma ala haustura ustezko dilema hori, ez zela oso benetazkoa esango nuke. Hau da, benetan planteatzen al zen hausturarik? Eta, erreforma gauzatzekotan, zer nolako erreforma?

Eta, bide batez, garai hura zer zen, lehenengo Trantsizioa? Bigarren Trantsizioa?. Izan ere, batzuek Trantsizio bakarra egon zela diote. Beste batzuek, berriz, bat baino gehiago egon dela. Hori ez da, noski, hemen nik defendatu nahi dudana.



*BOSTEKO KOPA: Paul Verlaine.*  
*Paul Verlaineek egin du erreberentzia*  
*Hain giza-legetsua delako Frantzia*  
*Arnoaren indarrak du pazientzia*  
*Poetari ematen dio lizentzia*  
*Gure esistentzia*  
*Da penitentzia*  
*Zure presentzia*  
*Edo ausentzia*  
*Izanen da arrabita bateko antsia.*



## TEORIAREN GARRANTZIA

Jarraitu aurretik gauza bat esan beharra dago, frankismoaren garapena ulertarazteko ikuspegi ebolutiboa erabiltzen baldin badugu, eta bada ia mende eta erdi bat Darwin hil zela, Darwinen osteko funtsezko irizpidea aintzakotzat hartu beharko genuke, “*filogenia ontogenian datza*” esieran laburbiltzen den ideia, alegia.

Horrek, gurean adierazita, eboluzio guztia izate bakoitzaren baitan islatu egiten dela esan nahiko luke, norbanakoaren baitan sedimentatu egiten dela, nonbait.

Hau da, gutako bakoitza gara, nolabait, eboluzioaren ondorioa, eta, gugan, bada, ikusi egiten da eboluzioa bera.

Orduan, non ikusten da ontogenia edo izate hori, balizko Trantsizio horri buruz ari garelarik? Hura bizi genuen izaki bakoitzaren garapenean, jakina.

Huraxe aztertuz, duela dozena erdi bat urte, Bénédicte André Bazzana izeneko historialariak kontatu zigun zer-nolako gezurrak azaldu ziren historialarien artean Trantsizioa zela eta<sup>13</sup>. Besteak beste, ustezko aldaketa politikoa nolabaiteko

kontsentsu baten ondorioa izan zela, adostua izan zela hedatuz, eta alderdi politiko ezberdinen artean hitzartua izan zela zabaldu arren<sup>14</sup>, ez zen inola ere halakoa izan.

Eta goian aipatu gezur haiek bezala<sup>15</sup>, Trantsizioak alde batetik frankismoaren ildotik zetorren inposaketa ezkutatu izan badu? Eta bestetik, oposizio politiko eskas batek onartu ordez irentsitako planteamendu horrek frankismoaren egokitzapen ideologiko-praktikoa desagerrarazteko balio izan balu?

Horren arabera, egun ezin izango litzateke inondik inora esan trantsiziorik egon zenik, ez eta inolako berezko aldaketarik, eboluzio politikoa baizik, eta ni, nire motzean, horretan nago.

Baina, berriro ere, aipatu eboluzioa zein epe-tan banatu beharko genuke?

Nola ezar dezakegu noiz hasten den Trantsizioa eta noiz bukatzen?

Izan ere, historiaren garapenean, eta nazionalitatez ari garelarik are nabarmenago oraindik, epeak behar bezala banatzen jakitea funtsezkoa izaten da<sup>16</sup>. Nazio desberdinen arteko kondairaz ari garelarik, eta hau da kasu honetan gure saiakeraren xedea, alde batetik ezin baitira ziklo berdinak erabili nazio guztientzat, eta, bestetik, nazio arazoaz aritzeko garrantzi gehiago baitu, Trotskik zioen moduan, historiaren ziklo luzeei erreparatzeak ziklo laburrei baino.

Batzuek jartzen dute, adibidez, Trantsizioaren abiapuntua 1973an. Urte horretan Carrero Blanco

hil zuen ETAk, eta horrekin frankismoaren jarraipena bertan behera geratu zen.

Beraz, 1973an hasi zen, batzuentzat, eta 1976an bukatu. Eta 1976an, zergatik?

Bada, garai hartan egin zelako *'El referéndum para la reforma política'* deritzana eta Espainiak onartu zuelako (Euskal Herriko Hegoaldean ere onartu zela gogora dezagun, bide batez). Batek daki erreferendum horiek zer-nolako sinesgarritasuna edukiko zuketean gaur egungo europar baldintza demokratikoen arabera, baina, halere, Hego Euskal Herrian onartu arren, esan beharra dago Espainian suertatutako kopuruak ez zirela inondik inora konparagarriak hemen gertatutakoarekin<sup>17</sup>.

Dena den, 1973tik 1976ra bitartean jarri ohi da, laburrean, batzuentzat Trantsizioa delakoaren epemuga.

Beste batzuek, aldiz, ezetz diote, Trantsizioa planeatu zela Franco bera hil zenean, eta Franco 1975ean hil zenez, orduantxe hasiko zen. Bitartean, talde politiko ezberdinen artean halako akordio batzuk ibili zirela gogoratu behar da. Bide batez, esan dezagun euskal alderdi guzti-guztiak kanpoan geratu zirela akordio horietatik, baita jeltzaleak ere, eta hori burutu zela, azkenean, 1978an, orain indarrean dagoen Konstituzioaren onarpenarekin<sup>18</sup>. Orduko datuak, ordea, honakoak izan ziren. Konstituzioko erreferenduma (1978ko abendua): Hego Euskal Herriko Abstentzioa: 51,2% eta Baietza: 34,8%

Ez du ematen, beraz, hauteskunde jarrera horrekin Euskal Herriak Konstituzioari inolako zilegitasuna eman zionik.

Hara, esan liteke bi epe desberdin daudela, 1973tik 1976ra eta 1975etik 1978ra bitartean<sup>19</sup>: bi aburu, beraz.

Trantsizioaren epeak direla eta, beste batzuek diote mugarriak direla 1974tik 1982ra bitartean. Hau da, eskuarki, historialari sozialistek esan ohi dutena, 1974an izan baitzen Suresnesen (Frantzia) PSOE aldatu zuen kongresua. Orduan, sozialisten artean Errepublikaren egituretatik etorritako buruzagi zaharren partez Felipe Gonzálezek alderdiaren boterea hartu zuen eta baztertuta geratu ziren gerra eta erresistentzia antifrankista galduta zetozen sozialista zaharrak (LLopis, kasu).

Beraz, hirugarren bertsioa, Trantsizioa 1974 horretatik 1982ra bitartean izango zen. Zergatik 1982? Urte horretan, hain zuzen ere, sozialistek hartu zutelako gobernua Madrilen. Haiek eta haien historialariek pentsatzen dute beraiek kongresua egin zutenetik, 1974tik, Espainiako gobernua eskuratu arte, 1982ra bitartean, Trantsizioa ez zela guztiz burutu<sup>20</sup>, zeren ordura arte espainiar estatua alderdi frankisten esku baitzegoen (UCD, CDS eta AP).

Ikuspegi sozialista horretatik begiratuta, bederen, 1982an bukatu zen Trantsizioa.

*ZAZPIKO KOPA: Jose Hernandez.  
Hernandez Argentinan oso ezagutzen da  
Kantatu duelako gautxoaren enda  
Panpa luze zabala Hernandezen prenda  
Ande mendi gorea asko maitatzen da  
Guztirik lehen da  
Herriko lejenda  
Negarrez hasten da  
Kantuz bukatzen da*





## IDAZLEAREN MALKOAK

Aipatu balizko Trantsizioaren epeei buruz zailantzat ditut. Ni, 1976an irten nintzen kartzelatik, eta 1982an, aldiz, berriro eraman ninduten jadanik kartzela ez den Carabanchelera baina orduan bazen, horixe baietz, eta atxilo ninduen polizia, nire kondenaren ebazpena erabaki zituzten epaileak eta kartzela bera lehengo berberak ziren, Francoren garaikoak, alegia. Arlo horretan, behintzat, ezin esan urte tarte hartan inolako aldaketarik egon zenik.

Dena den, epeei buruzko afera hau dela eta, beste batzuek alderantziz diote, 1973tik, hau da, Carrero hil zutenetik 1979ra bitartean gauzatu zela Trantsizioa. Beraz, Carreroren heriotzatik hasita eta autonomia estatutua (Gernikakoa) onartu izan zen bitartean legoke Trantsizioaren epea<sup>21</sup>. Hau da, Espainiako balizko Trantsizioaz ari garela, kontutan har EAEko baino ez den estatutuarekin batera beste gainerako autonomiaren ere hasi zirela indarrean jartzen. Hala eta guztiz ere orduko deszentralizazioa autonomiaren aldeko borroka baino gehiago deskolonizazioa aldarri izan ziren, Kanaria Uharteren mugimendu independentistak erakutsi zuten bezala<sup>22</sup>.

Hemen daukagu, bada, hausnarketarako betiko arazoa, eta haxe litzateke: zeintzuk ote dira, izatekotan, Trantsizioaren epeak?

Zein dira planteatu egin beharko diren denbora tarteak?

Bada, jakina denez, Elías Díazek<sup>23</sup>, adibidez, epe ezberdinak planteatzen ditu, eta ez da bakarra aditu guztien artean... beraz, zeintzuk hautatu beharra dago?<sup>24</sup>

Nik neronek hautu bat egin dut jarraian azalduko dudan beste irizpide batean zedarritua: 1961etik 1986ra bitartean. Eta hori deliberatu dut hala Euskal Herrian nola euskal kulturaren zentratu nahi izan dudalako hautua, bi ikuspegi, kulturala eta politikoa, kontutan harturik, funtsezkoak iruditzen zaizkidan bi ikuspegietatik, beraz.

Haxe litzateke aipatu hautuaren sakoneko arrazoia: 60ko hamarkadaren hastapenetatik aurrera oposizio politikoaren subjektua aldatzen hasi zelako eta, horrekin batera, erreferentzia kultural berriak ere sortu zirelako.

Hori irudikatzeko, erabili dudan erreferentzia literarioa, beraz, Gabriel Arestirena izan da<sup>25</sup>.

Gabriel Arestik 1961ean idatzi zuen *Zuzenbide debekatua*.

Zuzenbide debekatu horrekin, Arestik esan nahi zuen Euskal Herriari zuzenbidea, hau da, justizia debekatu izan zitzaioela. Euskal Herriak Espainiatik ez duela inoiz aukerarik izan modu justuan tratatua izateko zioen<sup>26</sup>.

Gabriel Arestik hori idatzi zuenean, poema luze bat utzi zigun, eta idazki hartan nahasten dira lehen aldiz bere literaturan bertsogintza zaharra, herritarra, eta orduko abangoardistak. Lizardi sari-rako aurkeztu zuenean, Zarautzen, noski, ez zioten batere saririk eman<sup>27</sup>, eta poema hori argitaratu gabe geratu zen 1986ra bitartean. 1986an, berriz, Susak kaleratu zuen Arestiren obra eta hartan, lehen aldiz euskara batua *avant la lettre* ikusten dugu, hau da, euskara batua izan aurretik, Euskaltzaindiak berak euskararen batasun bideak eman baino lehenago: hor azaltzen da jadanik protoeuskara batu bat.

Halaber, herritartasuna eta abangoardia bateratuta ikusten ditugu hirurogeigarren hamarkadaren hasiera hartan, baita ikuskera berri bat Euskal Herriari buruz ere eta, era berean, nolabait, hazten ari den oposizio berri bat, lehen existitzen ez zena gaztea zelako. Beste belaunaldi bat badator<sup>28</sup>.



*HIRUKO EZPATA: Jean Mirande.*  
*Pariseko gortean dago Jean Mirande*  
*Goiko zeru gorenak goibeltzen dirade*  
*Irten du sentimendu bortitzaren alde*  
*Zer garen zer ezkaren egiten du galde*  
*Poztutzen garade*  
*Oro da debalde*  
*Que hombre más grande!*  
*tiene un afán de...*  
*Bizkai ta Zuberoa junta balirade.*



## BIZKAI TA ZUBEROA JUNTA BALIRADE...

Aurreko frankismoaren kontrako oposizioa zen gerra egin zuen belaunaldia eta belaunaldi hori ahituta zegoen jadanik, zahartuta zegoen. Baina 1961aren inguruan sortu zen kimu berri bat.

Eta epeak sailkapenak direla eta, frankismoaren eboluzioaren azken mugarrria 1986an jarri dut epea amaitzeko. Izan ere, garai hartan sozialistek hauteskundeak irabazi zituzten bigarren aldiz Espainian eta, Hego Euskal Herriak bozkatutaren kontra, espainiar armada NATOOn sartu zuten alde batetik indar armatu frankistak profesionalizatuz nahiz nazioartekotuz eta, bestetik, golpista zaharrak neutralizatuz. Beno, 1961ean ere, gogoratu beharko genuke (ez bakarrik Gabriel Aresti) izan ere, garai bertsuan sortu zen Ruedo Ibérico izeneko argitaletxea, sasoi hartan garrantzi handia izan zuena, euskal jatorriko anarkista batek bultzatua eta kudeatuta, Pepe Martínez Gerrikabeitia<sup>29</sup>.

Ruedo Ibéricon azaldu ziren Trantsizioa izan zen garaian funtsezkoak izan ziren azterketak nahiz proposamen politikoak, orduko gai garrantzitsuak izan zirenak salatzeko, esaterako, eurokomunismoaren bide itxia, edo monarkiaren arriskua, erre-

gimen autoritarioaren jarraipena eta abar. Ikuspegi hark bideratuko zuen aukera politiko bat baino gehiago<sup>30</sup>, adibidez, geroxeago azalduko zen ekologismoaren aldeko borroka, borroka antinuklearra, borroka antiautoritarioa, borroka kulturala, hizkuntzaren aldeko borroka, eta abar... borroka mota horiek guztiak, gurean, loratu ziren garai horretan, 1961etik aurrera abiatuta betiere.



*HIRUKO BASTOA: Jean-Paul Sartre.*  
*Joane Paulo Sartre antiojoduna*  
*Bere benturagatik ezta euskalduna*  
*Horregatikan hura ezta fededuna*  
*Esku zikinak ditu ta arima astuna*  
*Hori da fortuna*  
*Guk eztaukaguna*  
*Gogorra beruna*  
*Burnia biguna*  
*Ardura haundia da ematen diguna.*



## EUROPA TESTUINGURU

1986an jarri dut frankismoaren eboluzioa bukatzeko, izan ere, 1986an Espainiak onartu egin zuen NATO n sartzeta, hau da, bloke batean lerratzeta mundu globalean eta borroka bandoan aukatzea, borroka militarrean ere bai.

Baina horrek suposatu zuen Espainia onartua izan zela erabat bai European baita Mendebaldeko potentzien artean; homologatuta geratu zen, bada, demokrazia kapitalisten artean ere.

Guretzat badago hor (1986an) beste erreferentzia bat. Aipatu data horretan Pasqua ministro frantsesak deitu zion Felipe González i Frantzian GALekin bukatu behar zuela esateko, eta GALen ekintzak Frantzian, behintzat, geratu ziren harrezkero.

Trukea izan zen horretan, jakina, eta Frantziaren inplikazioa Euskal Herriaren askapena aldarrikatzen zuen borrokaren kontra nabarmendu zen.

Lehen espainiar gobernuen aurkakoek Frantzian errefuxiatu politikoen estatusa legezt lortzen bazuten ere, aurrerantzean, hura erdietsi beharrean, errefuxiatuak jazartuak izatera eta espainiar polizien

esku uztera pasatu ziren. Eta, horrekin batera, euskal preso gehienak kartzela jakin batzuetan bateraturik eduki ordez, Espainiako kartzeletan barreatzea erabaki zuten, dispertsioarekin kartzela politika berri bati ekinez, hau guztia PSOEn ekimenez, 1986tik aurrera.

Baina funtsean, ustezko Trantsizioak epe desberdinak izan arren, haietariko luzeenak 1973tik hasten direla eta 1982an bukatzen direla ikusi arren, Euskal Herriari begira, bederen, askoz zabalagoa da aldaketa politikorako erabili beharreko epea, eta nago, goian esan bezala, aldaketak 1961ean hasi direla eta 1986an amaitzen direla.

Oposizio berri baten ibilbidearen garapena daukagu hor, aipatu erreferentziatzko bi data horien artean.

*BOSTEKO BASTOA: Franz Kafka.*  
*Franz Kafkak gazteluan bazuen meritu*  
*Enplego txar batean zelako metitu*  
*Lapenako tunelak mila metro ditu*  
*Zentimetro bederan etsai bat aurkitu*  
*Kableak finitu?*  
*Jaberekin kitu?*  
*Zero tainfinitu*  
*Eztut konprenitu*  
*Maraiaren nikelak miloi bat ardit du.*



## BIOPOLITIKAREN JAIOTZA

Esan behar dut, halaber, hau guztia burutze-ko erabili dudala bere garaian irakurri nuen Michel Foucault frantziar filosofo baten erreferentzia: *Naissance de la biopolitique*, (Biopolitikaren jaiotza)<sup>31</sup>. Eta zergatik hori? Bada, Foucaultek berak bere teoria plazaratzeko Francoren heriotza erabili baitzuen.

Franco hiltzen ari zela esaten zuen Foucaultek: “Aspalditik hilik dago baina hala ere biziara-zi egiten dute, iraunarazi egiten dute eta egunero dago parte medikoren bat deitzen dena esateko, adibidez: la flebitis está remitiendo y está siendo superada...”. Orduan, Franco ia gorpua zen kasik eta, hala ere, iraunarazi egiten zutela begi-bistakoa zen.

Egoera hori erabili zuen Michel Foucaultek, adibide zehatz modura harturik, kasu horretan boterearen aldaketa baten aurrean geundela esplika-tzeko.

Eta zein zen aldaketa hura? Aldaketa hura zen boterea zentzu errepresiboan, debekatzailan eta alienatzailean ikustetik, boterea sortzaile, produk-tibo eta kontrolatzaile izatera pasatzearena.

Hau da, garai jakin batean boterea indarra zen funtsean, heriotza ekartzeko eta edozeini mehatxurik egiteko aukera zuelako. Botereak hil egin zezakeen eta, horregatik, botereak zigortu, agindu eta mehatxatu egin zezakeen. Baina une jakin bate-tik aurrera, boterea jadanik ez da izango hilaraztea, biziaraztea edo iraunaraztea baizik. Medikuntzan erabilitako bigarren sistema hori da botereak era-bili izan duena modernitatean eta Francoren he-riotza, Foucaultek erabiltzen zuen adibidea, eredu hura zentzu zabal batean aplikatzeko eta, era ber-suan, biopolitika deritzana definitzeko ibili zuen.

Biopolitika, beraz, horixe litzateke, hain zuzen ere, ez errepresio zuzena, kontrola baizik. Eta kon-trolerako, berriz, debekua ez erabiltzea, produkzio bideratua baizik.

Horrek zer esan nahi du? memento jakin ba-tetik aurrera ez dela debekatuko, adibidez, euskara erabiltzea, baizik eta ekoitzi eta bideratu egingo dela hiritar mota jakin bat gizarte bizitzan, gurean “espainiar demokratak deritzanak”.

Horretarako, *botere piramidalaren partez*, zeinean batzuk (agintariak) erpinean dauden bi-tartean gehienak (zapalduak) haien azpian bizi behar duten, *botere-sarearen* kontrolaren bidez zokoratuak eta deskonektatuak agertuko zaizkigu: kanpoan utzitakoak. Botere antolaketa berri hone-tan baztertuak izango dira iraganean zapalduen to-kia hartuko dutenak. Ildo honetatik, garai bateko zentralismo errepresibo sakralizatuaren orde-zentralizazio saretua bezain kontrolatua garatuko



da, eta botere politikotik legez kanpo geratuko direnei, beraz, benetako oposizio alternatiba izatea besterik ez zaie geldituko<sup>32</sup>.

Handik aurrera, ekoitziko den gizartean, ez da boterea zentzu negatiboan soilik ibiliko, modu osagarrian eta, gero eta garrantzi handiagoz, zentzu positiboan baizik.

Boterearen gizarte kontrol hau biopolitikaren oinarri-oinarrian dago.

Orduan, Foucaulten planteamendu honek babilio digu ulertzeko uneren batean sortu egiten dela nolabaiteko botere haustura, zeinean botere autoritarioa, debekatzailea, nonbait, bekatua eta legez kanpokoa zer den esaten zuena, hori adierazi beharrean, desioaren nondik norakoa bideratzen hasten baita, hau da, produkzioa eta sedukzioa erabiltzen hasten denean, gizartea aldatu egin dela esan nahi du, eta honekin batera, aldatu egiten dela botere erlijioso errepresibotik beste botere kontrolatzailer batera. Gizartea antolatzeke eredu autoritario zentralistaren ordezkua modu sekularra eta autonomikoa izango da eta, prozesu luze baten bidez, aurreko indar zaharren birmoldatzea ekarriko du menperatze modu konplexu berriak gailentzen diren bitartean.



*SEIKO BASTOA: Giovani Papini.*  
*Papinik oso bista laburra daduka*  
*Argi bizien kontra egin du burruka*  
*Satorrak ezin duke eguzkirik buka*  
*Nahiz eta litzakeen haren brintzak uka*  
*Iluna muska*  
*Eginen du truka*  
*Haurrik ez eduka*  
*Esku baleduka*  
*Zarratuko lituzke eskolak oihuka.*



## SEKULAKO SEKULARIZAZIOA

1961ean suertatu zen Euskal Herrian 339 apaizek erabateko kritika egin ziotela erregimenari, frankismoari, eta orduan hasi zen Euskal Herrian alde zuzenetik ezagutzen ez zen sekularizaziorako dei bat, hau da, gizartea eta politika hasi ziren bihurtzen laikoak, baita gero eta modernoago ere.

Orduan, Arestik idatziko lukeen bezala, ohiko planteamendu jeltzale tradizionala, Jaungoikoarena eta lege zaharrena, bere maldan beherako bidea hasi zen.

Aldiz, sasoi berean, hasten ari zen sortzen gizartea eratzeke planteamendu berriago bat, sekularizazioarekin batera eta, ondorioz, Euskal Herria oso herri tradizionala izatetik herri modernoa izatera pasatzen joan zen.

Frankismoak apurtu nahi izan zuen aurreko modernitatearekin. Hau da, Errepublikarekin eta laizismoarekin zeuden lotura guztiak hautsi nahi izan zituen estatu kolpearekin. Horregatik frankismoak bere iraupena kudeatzeko eutsi egin zion monarkiari eta ez Errepublikari, eta horregatik ere, frankismoak eutsi nahi izan zion, besteak beste, Vatikanorekin zuen hitzarmen zaharraren planteamendu horri.

Era berean, Elizaren bidetik joan izan zirelako Frankoren “gurutzada”ren aitzakiak ez zuen balio izan euskaldunen aurkako borrokan.

Berriki argitaratutako Zamorako apaizen historiak gogoratu egiten digu orduko apaizen sekularizaziorako bidearen hasiera eta, horrekin batera, 60ko hastapenetan abiatzen den prozesu oso bat<sup>33</sup>.

Kontu interesgarria da Juan Carlos erregeak berak zer esan ohi duen Francori buruz<sup>34</sup>. Izan ere, erregeak azaldu duen Francorekiko atxikimendua, miresmena eta abar izugarri dokumentatua daude eta beti aurkeztu du bere burua Francoren jarraitzaile moduan. Oso -oso bitxiak dira honi buruz egin izan dituen adierazpenok baina funtsezkoenak gertatu ziren 60ko hamarkadaren hasieran, hau da, frankismoaren iraupena sekularizazio prozesuarekin batera hasten denean, hala gizartean nola politikan ere<sup>35</sup>.

Erregeak berak “adiskidetzte nazionala” nahiz monarkiaren beharra espainiar trantsizioa deitukoan teorizatu zuen Santiago Carrillo politikariaren hiletan, ir(k)onikoki Marcelino Camacho izena zuen egoitzan, goraipatu zuen aipatu garaian Espainiaren alde eginiko lanagatik<sup>36</sup>, aurreko egunean Espainiatik aldentzeko dauden sezesionismoaren nahiak gogor kritikatu zituen Juan Carlos berberak (Carrillok PCEko idazkaritza nagusia 60ko hamarkadaren hasieran eskuratu zuen)<sup>37</sup>.

Ez da ahaztu behar, bide batez, Trantsizioaren arabera eraiki zela hala Carrilloren nola PCEren itzal luzea espainiar politika garaikidean<sup>38</sup> eta, ho-

rreren oinarrian, estatu aparatuek Madrilgo Atocharren abokatuen aurka burututako atentatuaren bidez eragindako mehatxua izan zela (1977)<sup>39</sup>. Cubillo kanariar independentista ere jo zuten espainiar zerbitzu sekretuak garai bertsuan (1978). Estatu bortxak, beraz, baldintzatu zuen Trantsizioaren bide politikoa bere hastapenetatik eta, behar izan zenean, 1989an Euskal Herriaren egoera aldatzeko aurkeztu nahi izan zituzten proposamen politikoak gerarazteko kasu, bide berriari ekin ziola espainiar estatuak<sup>40</sup>.





*BIKO URREA: Pablo Neruda.*  
*Komunisten artean don Pablo Neruda*  
*Fortuna deseatu batera heldu da*  
*Zer den negua eztaki eta zer den uda*  
*Ezta zer den bakea edo zer den guda*  
*Bertan biluztu da*  
*Eta beztitu da*  
*Ezliteke muda*  
*Eztut ezein duda*  
*Bere kantuan Txili nekez ulertu da.*



## MUNDUA TESTUINGURU

Eta hura zer nolako testuinguruan gertatzen zen munduan? Kubako iraultzak irabazi berri zuen, 59ko Urte Zaharrean sartu baitziren kastristak Habanan.

Sobiet Batasunean hasi zen estalinismoaren nolabaiteko garbiketa (botere autoritario debekatzaitetik kontrol mekanismo modernoetara pasatuz), hau da, Krutxevek hartu zituen lehenengo neurriak estalinismoaren kontra eta Stalinek kudeatutako prozesu errepresiboa hasi zen susmopean planteatzen. Orduan, era berean, marxismoaren planteamendu berri bat ari zen sortzen, “ezker berria” deiturikoa<sup>41</sup>, ez bakarrik Kubarekin eta askapen mugimendu antiinperialistarekin, baizik eta Sobiet Batasunean bertan oposizioa zabalduz eta handik kanpo ere borroka nahiz esparru molde berriak sortuz.

Mundu mailan bazegoen oso egoera liskartsua, U2 deitutako misilak hasi ziren banatzen, beranduago Kubara iritsi zirenak, eta Hirugarren Mundu Gerratea hastear egon zen, baina bitartean Vietnamgo Gerra hasi zen, Koreakoa eta gero.

Vietnamgo Gerraren garrantzia handia izan zen oso. Ameriketako Estatu Batuek Lehen eta Bi-

garren Mundu Gerratean ere zuten botere handia galdu zuten Vietnamgo Gerraren porrotarekin batera, eta orduan ikusi zen Kubako ereduak irabazi zuela, Vietnamek ere irabazi zuela, eredu politiko berriek gerra osteko etsipenetik irteteko aukerak irekitzen zituzten bitartean<sup>42</sup>.

Espazio lehia gori-gorian zegoen, eta horrek esan nahi du globalizazioa, orain deitzen dugun globalizazioa behinik behin, hastapenetan zegoela.

Estatu Batuetan eskuindarrak ari ziren agintzen, Ku Klux Klan-en ingurukoak, baina haien aurrean eskubide zibilen aldeko borroka ere bere urratsak emanak hasita zeuden.

Frantziako kolonien askapenak sekulako eragina izan zuen Euskal Herrian, batik bat, Argeliako independentzia etorri zenean<sup>43</sup>. Argeliak independentzia lortu zuen 1962an. Eta ildo horretan, marxismotik planteatzen ari ziren, goian esan bezala, beste proposamen berritzaile eta antinperialistak: ezagunenak Txilen, batik bat, non boterea eskuartzeko gizarte bide berria ari zen jorratzen, eta Txinan, non Kultur Iraultza deitutakoa hasi zen zabaltzen. Halaber, Sobiet Batasunak eraginda, kritika bat zabaldu zen aurreko agintari sakralizatuen aurka eta, nolabait, sekularizazioetara ere jotzea izan zen orduko hautua.

*SEIKO URREA: Pedro Axular.*  
*Eznenkien euskeraz eginen dut negar*  
*Baina ikasiko nuen hizkuntza hau azkar*  
*Liburuetatikan egin nuen zeihar*  
*Lizardi Loramendi Lafon Bouda Tobar*  
*Nengoela dardar*  
*Ez espanturik han*  
*Eta herrian sar*  
*Jator eta zahar*  
*Maisurik hoberena izan zen Axular.*



## EUSKAL HERRIA MUNDUAN

Zer gertatzen ari zen Euskal Herrian garai horretan? Bada, orduan apaizak hasi zirela jadanik oldartzen gotzainen kontra, baita euskara batua ere hasia zegoela aldarrikapenetik prozesu produktibo proposatzaile batera joaten. Ikusten denez, urte berberetan kaleratzen dira Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca* (1960), eta izen bereko Villasanterena (1961), baita *Literatura oral vasca*, Manuel Lekuonarena ere (1961). Horrek bere garrantzia du, izan ere, gogoratu egin beharko genuke euskara batuaren prozesuan jeltzaleek beti kontrako bidea hartu zutela, ez baitzuten inondik inora onartzen euskara batuaren beharrik.<sup>44</sup>

Beraz, euskara batuak suposatu zuen euskaldun guztien batasuna<sup>45</sup>, eta, nola edo hala, honek batasun politikoa dakar berarekin batera. Hau da, aurreko planteamendua guztiz euskalkien aldekoa bazen, guztiz “filologista”, nolabait esanda, eta Elizaren menpekoa, batuaren aldeko jarrera berri horretan Eliza gaindituta suertatu zen.

Beraz, euskara batuaren historian, eta hori behin baino gehiagotan azaldu da ikerketa desberdinetan, funtsezko etsaiak abertzaletasun tradizionaletik etorritakoak izan ziren<sup>46</sup>.

Agirre lehendakariaren heriotza ere ordukoa da (1960). Horrekin, berriro diot, gerran ibilitako belaunaldiaren maldan behera hasten zen eta, alde-rantziz, ETAren sorrera izan zen 1960aren inguruan<sup>47</sup>. Horregatik ere hasten da niretzat Trantsizioa garai honetan, belaunaldi berri bat badatorrelako borroka molde berri batzuk proposatzen hain zuzen ere.

Aipatutako *gotzainei gutun* horren garaikidea izan zen Begoña Urrozen kasua ere (haurra akabatua izan zen garai hartan, eta orain saldu nahi izan dute ETAren lehenengo biktima izan zela, intoxicazioa frogatua izan arren<sup>48</sup>), talde paramilitarrek eragindako biktima bat izanik.

1961. urtean daude, nire aburuz, frankismoaren eboluzioa hasten denean, edo haren kontrako borrokaren eboluzioa bederen, urte batzuen ondoren emango den espainiar botere politikoaren aldaketaren gakoak.

Zeintzuk ziren orduko aldarrikapenak eta hori nola ikusten zen Euskal Herrian?



*ERREGOKO EZPATA: Gabriela Mistral.*  
*Erdi zen euskotarra Gabriela Mistral*  
*Erderaz eskribitzen etzen hori makal*  
*Gaztelani txarrari hartu dio itzal*  
*Andre artean izan zen hura jeneral*  
*Abogadu fiskal*  
*Apezpiku legal*  
*Eztu higuin ahal*  
*Arima sendoal*  
*Baina bularra berriz flako urri ta argal.*



## ALDARRIKAPENEN KANTUAK

Beno, ene ustetan, zerbait hasi baldin bazen pitzatzen, hori izan zen Espainiako zentralismoa. Hau da, periferietan, nolabaiteko Galeusca kulturala sortu zen eta *Nova Canço* giro kulturalaren bidez hasi ziren produktu abangoardista berriak modan jartzen eta zabaltzen bai artean baita kulturaren ere<sup>49</sup>.

Estatuaren bortxa politikoari hasi zitzaion erantzuten bortxaren erabilera politikoarekin. Eta esan beharra dago borroka armatuaren aniztasuna ere bazegoela, handia, eta talde ezberdin askok praktikatu zutela borroka mota hori, hasi anarkis-tengandik, segitu frankismoaren kontrako mota desberdinetako komunistak eta abar. Haietako asko ezagutu genituen kartzelan. Hau da, talde anarkistak, hemen ere egondakoak, Euskal Herrian, eta indar handiarekin; talde antifrakistak, FRAP edo PCR edo GRAPO, eta gero, maoistak, Iraultza taldekoak, eta enparauak hasi ziren orduan. Eta haiez gain, mota ezberdinetako abertzaletasun borrokak, baita autonomoak ere<sup>50</sup>.

Txibertaren erreferentzia da niretzat garai hartan ahaztezina<sup>51</sup>, “Txiberta” zer zen ezaguna baita.

Txiberta, Baionatik goragoko labarretatik gertu dagoen lakua, golf zelaia eta hotela da eta, hantxe Monzonek, Franco hil ondoren, elkartu zituen Euskal Herriko oposizioko gehienak balizko Transizio horren aurrean batera ibili ahal izateko. Eta hor, noski, jeltzaleek PSOErekin bai eta frankistekin ere paktatu egin zuten lehenengo hauteskunderetan sartu ahal izateko beste abertzaleen konpetentziarik gabe, nahiz eta amnistia, oraindik, gauzatuta ez izan. Hor sortu zen, bada, nolabait orain arte dirauen abertzaleen arteko haustura bat<sup>52</sup>.

*Joaneren bihotzak  
daude egarriturik,  
prisondegi horretan  
ezpaitago urik.  
Izarretatik esnea  
dakarrela Jurik.  
daude aseturik.*



## AMNISTIAZ ASE ALA GOSE?

Errepresioaren aurrean herriaren protagonismoa gero eta handiagoa izan zen kalean amnistia-  
ren eskaerarekin. Amnistiarena da, hain zuzen, be-  
rrirakurri edo birplanteatu egin behar den orduko  
gertakarietako bat.

Hau da, amnistiak zein puntutaraino jo zuen  
Euskal Herriaren alde edo, funtsean, amnistia ez  
ote zen izan, aldez edo moldez, frankismoaren al-  
detik erabilia beraiek egindako guztia ezabatu eta  
zuritu ahal izateko?

Eta horrez gain, mundu mailan, gogoratu be-  
harra dago 70. hamarkadan petrolioaren krisia izan  
zela eta birrintze industrialak hasi zela, baita, horren  
ondorioz, antolaketa berria ere botere banaketan,  
hirigintzan nahiz komunikazio bideetan<sup>53</sup>.

Nire grazia Joane da ta  
Ikus bez errusinolak  
Nola ugaritzen diren herrian  
Preso egoteko kaiolak  
Nola urritzen diraden berriz  
Libre egoteko arbolak  
Nolatan irten duen erotik  
Libertatearen zolak

Bertso hauxe dugu lehen aipatutako eta izkribu honetan zehar erabilitako *Zuzenbide debekatuan* agertzen denetariko bat. Arestik idatzitako poema luze horren moldea, ikusten den bezala, guztiz molde herritarra dugu. Baina, era berean, oso modu berrian lotua eta josia.

Hemen, garai honetan eta idazki honekin, hasten da sortzen, ene aburuz, estilo berri bat, non herri kulturak eta kultur abangoardistak bat egiten duten eta, gainera, gizarte mailan zabaltze handia ere lortuz.

Ordukoa da *Ez Dok Amairu* (ofizialki 1966an sortua). Horren erreferentzia interesantea, orain gogoratzekoa, Mikel Laboa bera izan daiteke: pertsonaia guztiz herritarra, herri kultura zabaltzen duena, bertsoak ohikoa ez zen publiko zabalean ezagutarazi zituen bere garaian. Baina, halaber, oso abangoardista eta artean ere aitzindaria.

Nire grazia Joane da ta  
Poeta naiz ofizioz  
Nire kantua isiltzen dute  
Justiziaren medioz  
Justiziaren zuzenbidea  
Egina dago adios  
Merkatariek erosi dute  
Marai bateko prezioz.

Garai berekoak ditugu, gogoratu, bi Gabrielak (Gabriel Zelaia eta Gabriel Aresti) egindako ekarpenak: Zelaiak *Rapsodia Euskara*<sup>54</sup> eta Arestik *Zuzenbide Dekebatua*.



*SEIKO KOPA: Gabriel Zelaia ta Blas  
Otero.*

*Zelaia ta lagunak bertan datzazi lo  
Mihin-puntan eztute hoiek ezein bilo  
Baina arimako zolan biloika bazilo  
Hautatu behar dute: Hori korapilo!*

*Zeruan lau zilo*

*Egin dute pilo*

*Txatarraz eun kilo*

*Hor daude erdi-lo*

*Negarrez entzunikan hiru krokodilo.*



## GABRIELEN BERBALDIA

Zelaiaren hitzak:

“Nosotros levantados contra los invasores godos, árabes, romanos, que escupimos afuera y contra (“escupimos” horrek esan nahi du “kontra”z gain, bota egiten dutela kanpora) esos mestizos de moros y latinos llamados españoles”.

Gabriel Arestik *Zuzenbide Debekatua* idatzi zuen garai hartan. Eta zer esan nahi zuen zuzenbide debekatu horrekin? Bada, garai hartan Joxe Azurmendiri idatzi zion karta bat<sup>55</sup>, esaten dionez, Euskal Herriari debekatu egin diote justizia, Euskal Herrian ez dagoela justiziarik, Hemen eskubi-deak interdita direla.

Hori da nik egin nahi dudana ekarpenaren aldarria, hots, Trantsiziorako gure hurbilpena ez da izan behar bakarrik hurbilpen historikoa edo politikoa, hurbilpen kulturala eta etikoa ere bai, zeren eta kulturaren bidez, euskara batuaren bidez, literatura dela medio, ulertu baitaiteke gure metaforen garapena, gure mitoen eboluzioa zentzu zabal batean, eta Euskal Herriaren eboluzioari buruz ari naiz, jakina. Hori dela bide ikusi ahal izango dugu

nondik gatozen, nora goazen, eta nola izan den gure garapena, baita nolakoa izango den gure bilakae-  
ra ere Euskal Herriari zor zaion justizia eskuratu  
arte<sup>56</sup>. Arestik zioen moduan, ez baita inoiz izan  
justizia politikoa Euskal Herrian, areago, espainiar  
zuzenbidea erabat etsai eta aurkakoa izan baita  
historian zehar euskal herritarrekiko, frankismoan  
zehar errepresioaz soilik, eta laurogeiko hamarka-  
daren erdialdetik aurrera haren legezko eskusio  
politikoa eta guzti. Areago, espainiar zuzenbideak  
Euskal Herriaren historia ere idatzi nahi izan du.

Gogoratu beharra dago halaber garai haietan,  
adibidez, inposatu zela ‘eskolaritate liburua’. Vi-  
llar Palasí legeak, 1970ekoa, erregimen frankistari  
funtsezko aldaketa bat ekarri zion, hau da, indar  
frankisten artean, batik bat falangistak eta karlist-  
tak (tradizionalistek) galdu zutela protagonismoa  
60ko hamarkadaren hasieran eta nolabaiteko mo-  
dernitya hasi zela zabaltzen, hau da, betiko ikus-  
pegi klasikoa, gerratik zetorrena, ‘por el imperio  
hacia Dios’ ikuspegi inperialista-falangista hori  
maldan behera hasi zen eta, aldiz, igotzen hasi zen  
ikuspegi berri bat, teknokratikoa deitzen zena. Ho-  
nekin ere abiatu zen “frankismo berantiarra” deitu  
izan dena, niretzat, aldiz, frankismoaren eboluzio  
sekularraren hastapena eta botere politikoaren bir-  
moldaketa izan dena.

Ikuspegi teknokratiko horretan irakaskuntza  
aldatuko da, eta zer gertatuko da, adibidez, euskal  
munduarekin?

Bada, euskal eskolak Elizaren pean aterpetuta  
zeudela eta, lege berriarekin batera, nolabaiteko le-

galizazioaren bila jo behar izan zutela, hain zuzen ere.

Honek ekarri zuen, adibidez, haur guztiek beren eskolaritate liburua eduki behar zutela jadanik garai hartan (65ean), zeren eta 'la cartilla de escolaridad' deitzen zena ezinbesteko tresna bihurtu baitzen<sup>57</sup>. Eta 'cartilla de escolaridad' honekin, orduan, ikastolek hasi zuten beren bizitza legal propioa.

Horretan ere, beraz, nolabaiteko sekularizazio bat ikusten da, aldaketa bat, laizismoaren bidetik belaunaldi berriak hasten direla modu berri batez elikatzen eta hazten.



*ERREGOKO KOPA: Federiko Garcia  
Lorca  
Federiko Garcia Granadan hil zuten  
Eztakigu oraindik zer atera duten  
Haizearen negarrik eztugu entzuten  
Tiro doilor haiekin mututu ginduten  
Eztut erantzuten  
Zetzaz ziharduten  
Parkekin iruten!  
Eta katabuten  
Freskura galantean ginaden etzuten.*





## ALDAKETAREN FRESKURA

Madriilen zer gertatzen zen balizko Trantsizio edo bioboterearen eboluzio garai hartan, 1965 urtetik aurrera?

Bada, alde batetik, frankismoaren inguruko talde batzuk hasi zirela prestatzen beren mudantza, beren aldaketa hura. Funtsezkoak zeintzuk izan ziren? *Asociación Católica Nacional de Propagandistas* deritzana, non 'el grupo Tácito' deituriko taldea baitzegoen, eta haiekin batera falangismotik etorritako beste batzuk, Adolfo Suárez bezalako bat, kasu, bazeuden. Halere, funtsezkoena izan zen demokrazia kristauan aldizkari bat, *Cuadernos para el diálogo* deitutakoa. Eta *Cuadernos para el diálogo*on, bazegoen talde bat, oinarrian, Joaquín Ruiz Giménez abokatuaren inguruan. Hori bera izan zen gero hezkuntza ministroa Espainian.

Jende hau guztia eguneroko prentsan azaltzen zen bi tokitan: *Ya* izeneko egunkarian (*El diario Ya*). Hantxe baitzegoen 'Tácito' taldea, izen kolektiboa zena, hauek denek beren iritziak plazaratzeko eta, horrez gain, *El diario informaciones* ere birmoldaketa politikoaren bozeramailea izan zen.

60ko hamarkadaren hasieran iritzi hauek guztiak, nolabait esanda, demokrata-kristauak zirenak,

elkartu ziren München frankismoari irtenbide bat bilatzen hasteko, irtenbide adostu bat. Horri 'El contubernio de Munich' (1962) deitu izan zitzaion. Hau dena espainiar demokrazia-kristauaren aldetik<sup>58</sup>.

Beste aldetik, lehen esan dudan moduan, Alderdi Sozialistak egin zuen Suresnesen bere kongresua eta hautsi egin zuen aurreko sozialismoarekin 1974an. Eta orduan hasi ziren Felipe González, Jorge Semprún, Fernando Claudín, Leguina eta enparauak boterea hartzen eta frankismoarekiko hitzarmen hura prestatzen, hain zuzen.

Haiez gain, Alderdi Komunistan hasi zen planteatzen 'berradiskidetze nazionala' (espainiarra, jakina). Haiek espainolen ikuspuntutik planteatzen zuten Berradiskidetze nazionala, noski, ez zuten inoiz ere pentsatu Euskal Herria zegoenik, garai hartan Alderdi Komunistakoek oso garbi baitzuten Estatua zela borrokarako esparru bakarra.

Eta, nire ustez, hor kokatu behar da amnistia-aren aldarrikapena, aipatu 'Berradiskidetze nazionala' kontzeptualizazioaren barruan. Eta hortxe ere planteatu beharra dago, nolabait, zein puntutaraino amnistia horrek on edo txar egin zigun gainerakoei, espainiarrez bestekoei. Izan ere, amnistia-aren bila borrokan geundenean (eta nik ikusi nituen, noski, nire lagun guztiak kartzeletatik kalera ateratzen borroka haien ondorioz eta amnistia horrekin batera), frankismoak lortu zuen beraiek egindako sarraski guztiak epairik gabe geratuko zirela ziurtatzea.

Garai hartan, egia da agian ezin zela amnistia beste modu batez planteatu, baina, horretarako, erreferentzia bezala besterik ez bada ere, Ramón Solak Garan idatzitako artikulua<sup>59</sup> ekarri nahi dut, non planteatzen baita egun azaltzen ari den halako *justizia trantsizionala* deitutakoa agerraraztea beharrezkoa izaten dela Trantsizio denboretan. Hots, aldaketarako bidean, garai jakin batean egiterik izan ez zena, *justizia trantsizional* hori gauzatu alegia, egun bitarteko legalak bilatu behar direla zuzenbideari zor zaiona kitatu ahal izateko.



*ZALDIKO EZPATA: Miguel Hernandez.*

*Hernandezek zimista dauka bihotzean*

*Bero haundia dauka abendu hotzean*

*Bere fortuna zaio botako zotzean*

*Gordetzen da bizia haren hilotzean*

*Bere gorputzean*

*Eta gurutzean*

*Manera motzean*

*Garbia funtsean*

*Haren oroitzapena dator iluntzean.*



## OROITZAPEN ILUNEN ARGIETARA

Argentinako edo Txileko diktaduren egoera bertan behera geratu da 1983an. Irlandarren irtenbidea hasi zen planteatzen 1999tik aurrera. Timorren, baita ere, 1995ean edo hortik aurrera. Bero, zenbait tokitan munduan zehar planteatu izan dute aipatu *justizia trantsizionala*, nik zuzenean edo zeharka ezagututako Irlandan, Argentinan, Txilen, Perun, Timorren, Hego Afrikan dagoeneko aurrera eramán dute Espainiako Trantsizioa deitutako hartan planteatzerik izan ez zen justizia trantsizionala.

Baina *justizia trantsizional* honek zer suposatzen du?

Ohiko justiziak bere bidea egiten baldin baidu biktimen aurrean eta egindako kalteen aurrean aritzeko, trantsiziozko justizietan pentsatu beharra dago justiziak zer nolako zeregina bete behar duen. Beraz, biktimei kasu egiteagatik trantsizio politikoaren prozesu bera, aldaketarako prozesu bera, bertan behera gera ez dadin, justiziak zer egin behar duen asmatzen jakin beharra dago<sup>60</sup>. Orduan, justizia mota berezi bat izaten da hori, justizia trantsizionala deritzana (justizia poetikoa, agian?)<sup>61</sup> eta, normalean, gauzatu egiten da Egiaren Batzor-

deen bidez. Hau da, Hegoafrikan kasu, hala Estatuak nola haren kontra aritutako oposizioak ere egindako kalteen berri eman behar izan dute aipatu batzordearen aurrean, horrela egiten ez duena legez kanpo utziz. Egiaren Batzordeak jasotakoa, berriz, ez da, berez, ohiko legeen arabera juzgatu izango balizko aldaketa politikoaren onerako, baina edozein modutara, ezin izango da aldaketa burutu, aurreko kontuak argitu gabe.

Hori ez zen gertatu Estatu espainiarrean Transizio garaian, ordea. Amnistiaren legearekin, adibidez, zer gertatu zen?

Bada, ezin izan zitzaiea aurreko frankismoaren garaiko gertaerei berrikuspena egin eta, are gutxiago, ondorio ofizialik bilatu. Eta horretan oinarritu izan da Espainiako Epaitegi Gorena Garzón epaileari esateko, hain zuzen, Amnistia Legeak ez zuela ahalbidetzen, ez zuela baimentzen ezertxo ere egin ahal izatea frankismoaren krimenen aurrean<sup>62</sup>.

Orduan, nire galdera, hau aztertzerakoan, zera da: ondo egin al genuen amnistia eskatzen, kontuan izanik amnistia bera beraiek, frankistek, erabili behar zutela eta horrek baldintzatu egingo zuela zetorren egokitzapen politikoa?

Beren inmovilismoa justifikatzeko ETA erabili izan dutenen eta, oraindik mementuo honetan erabiltzen ari direnen aurreko ankerkeria guztiak ordaindu gabe gera daitezzen eskatu genuen orduko amnistia?

Baiki, nik uste dut garai hartan amnistia, sortu zela, hein batean, Alderdi Komunistaren berra-



diskidetze teorien eraginez, baina Euskal Herriak, halere, ongi erabili zuela, hau da, Euskal Herriak lortu zuen presoak kaleratzea eta hori izan zen orduan funtsezkoena baina ez da izan, ordea, lortutako emaitza bakarra...



*Joaneren bihotzak  
ezkutuenean,  
minez negar egin du  
pozaren gainean.  
Malkoak izan dira  
alferrikanean,  
sikatuko baitira  
urkatzen denean.*



## SOKA BEREAN URKATUAK

Eta gainera, hori guztia gertatu ondoren etorri dira Historiak ere eman dizkigun beste adibide batzuk, eta hori da, hain zuzen ere, orain planteatzeko daukagun aukera berri bat. Aurretik adierazi dudana, hau da, orain ziklo aldaketa baten aurrean baldin bagaude, eta 2011n ETAk erabakitako su-eten iraunkorrari esker hala gaudelakoan nago, seguru aski justizia trantsizionala eta Egiaren Batzordeak izango dira hurrengo urratsa eman ahal izateko ardatzak.

Trantsizioaren garaian Madrilek arazo politikoak ez ezik, bazituen, orain bezala, arazo ekonomikoak ere. Funtsean, esan dudan moduan, garai hartan, oraintxe bezala bestalde, petrolioaren krisia sortu zelarik eta, orduan, argindarra birmoldatu egin behar izan zen, hau da, bilatu egin behar izan zen beste modu bat erregai estandarrek, gasak eta antzekoak lortzeko, iturri energetiko potenteak, alegia<sup>63</sup>.

Honen aurrean ere, Euskal Herriak oposizioaren neurria eman zuen eta mundu osoaren aurrean nuklearren zentraleri aurre egitea eta irabaztea lortu zuen.

Edozein modutara, Espainiako Konstituzioak, 1978an, argi eta garbi utzi zuen Espainiako Estatua zela ‘un estado de libre mercado’, baina horrekin batera, bigarren artikuluan, azpimarratzen da, eta bi aldiz, ‘la indivisibilidad de la patria’, eta Armadari parte hartzeko aukera legala ematen zaio, zortzigarren artikulua bidez, parte hartzeko aukera zatitze bidea baldin eta balego. Gure garaian “polizia armada” grisa zena oraingo “Konstituzio armada” urdina bilakaturik, bide batez...<sup>64</sup>

Hirugarren artikuluan esaten da, modu arrunt kuriosoan, honako hauxe: ‘las lenguas españolas son: el castellano, la lengua oficial que todos tienen el deber de conocer y el derecho de usar en sus respectivas jurisdicciones, el euskera, el catalán y el gallego’. Hau da, oso kurioa izan da ez dela esaten ‘la lengua oficial de España es el español’, espainola ez baita existitu ere egiten legalki, “las lenguas españolas” omen dira existitzen direnak.

Eta horrek beste ondorio batzuk baditu, baina, tira, ez naiz orain horretan sartuko<sup>65</sup>.

Eta, ildo beretik, adibidez, 145. artikulua bera ere oso-oso berezia da. Egina dago batez ere Euskadi eta Nafarroa ez elkartzeko. Hau da, debekatu egiten du autonomien artean biltzea.

Gauza bera gerta zitekeen, esaterako, Valentzia eta Kataluniarekin. Hautatuko balute haien autonomiak batzea, Konstituzioak, Espainiako Konstituzioak, 1978ko Konstituzioak, debekatu egingo luke.

*Gure alkateak zer  
duen erabaki.  
Beso urdin-gorria  
uniforme kaki;  
zuzenak eztu gura  
ezein adobaki.*





## LOTUTA BAITA ONGI ERE LOTUTA (**atado y bien atado**)

Dakigunez, Moncloako Ituna izan zen Konstituzio honen aurrekoa, hau da, lehen bildu ziren alderdi espainiarrak, goian planteatu ditudan ohiko frankista “egokitutakoak”, “la Asociación Nacional de Propagandistas” ingurukoak, sozialista zaharren ordezkariak PSOEkoak eta azkenean “adiskidetze nazionalaren aldeko” PCkoak ere bai, eta zer gertatu zen? Euskaldun guztiak geratu zirela hortik kanpo, baita EAJ/PNV ere, noski.

Orduan, Moncloako Itunak egin ondoren, egin eta idatzi zen Konstituzioa, gero azaldu zitzaion PNVri, PNVk jakin zezan. Baina gogoratuta dago, jakina baita, Euskal Herria ez zela Konstituzioan onartu (eta ondorioz, Euskal Herriak ez zuela Konstituzio hori ere onartu...), baina Konstituzioaren aurretik, 1978a baino lehen eta 1979ko ‘Estatuto de Autonomía’ nahiz “1982ko Nafarroako Foru Hobekuntza” baino lehen, 1976an izan zen ‘El referéndum de la reforma política’, non, Franco hil ondoren, gauzak lotuta baita ongi lotuta ere geratu ziren, espainiarren demokraziaren oinarria onartzeko, baina ez jende askearen demokrazia, baldintzapekoa baizik<sup>66</sup>.

Orduan, erreferenduma onartu ondoren, ‘Tribunal de Orden Público Frankista’ bertan behera geratu zen. Baina egun berean 1882tik indarrean zegoen lege bat, ‘La ley contra las armas, contra el uso de armas y contra la delincuencia’, hau da, karlisten kontra egina zegoen lege bat, berpiztu egin zuten Auzitegi Nazionala sortzeko, aurrekoari jarraipen zehatza eginez, hain justu<sup>67</sup>.

Dakigunez, hurrenkera hala izan zen: 1976an “Erreforma politikoaren” erreferenduma, 1978an erreferendum konstituzionala, 1979an EAEaren autonomia erreferenduma, 1981ean badator Tejero eta bere estatu kolpea ematen du (otsailaren 23an).

Eta Tejero guardia zibilaren kolpearen ondoren, erreformei balaztak tenkatu egiten dizkiete eta Estatua honezkero ez da hortik gehiago mugituko legalitatean eta, aldiz, hasiko da mugitzen aurreko Transizioan emandako urratsak ezabatzen (LOA-PA) eta, pur et cru, ilegalitatean.

GALen ekintzak hasi ziren hedatzen eta haiek iraugo dute, esan bezala, 1986a arte, Frantziako barne ministroa zen Pasquak Gonzalezi esan zionean bertan behera utzi behar zuela hori. Frantziako telebistan atera da honi buruzko erreportaje bat, nahiko argia eta nahiko daturekin<sup>68</sup>.

Eta 1986an, berriz, azken erreferenduma izango da NATOn sartzeko. Eta berriro ere Euskal Herriak ezetza eman zion NATOn sartzeari<sup>69</sup>.

*Joaneren bihotzak  
dirade bortitzak.  
Eztitu bentzutuko  
tiranoen hitzak.  
Burnietan dabilta  
alferrean zitzak.  
Foera bitez jabetzak  
ta buruzagitzak.*



## TIRANOEN HITZEN JANA

Beraz, ondorioak azalarazteko eta balantzea egiteko garaian, une honetan, esan beharko genuke Trantsizioa ez zela Franco hil ondoren epe motzean burututako erregimen instituzionalaren inolako aldaketa azkar eta kontsentsuaturik izan, urte luzeetan zehar emandako botere politikoaren eboluzioa baizik, zeinean agerian zegoen indarraren erabileraren partez gizarte kontrolerako menperatze mekanismo deszentralizatuak (sarean) bezain modernoak (biopolitikoak) hedatzen eta gauzatzen hasi ziren. Aldaketarekin batera, ordea.

Lehenengo eta behin, nire ustetan, honezkeror, Euskal Herriak ikasi du amnistiarekin, agian, ezin izan genuela guztiz asmatu, baina, halere, ez zegoela guztiz gure esku.

Orain, aldiz, gure esku dago beste prozesu batzuetatik ikasitakoa botere politikoaren ziklo aldaketa honetan proposatu ahal izatea, justizia trantsizionala indarrean jartzen hastea eta orduko amnistia legearen egokitzapena eskatzen hastea<sup>70</sup>.

Bigarren eta biga, Euskal Herriak akordio politiko nazionala behar du, baina ez Txibertan bezalakoa, baizik eta, ahal delarik, ezker abertzaletasu-

na eta nazionalismo tradizional jeltzaleekin batera burututa; 2012ko Diadan Bartzelona gertatutakoa horretarako aukerak ematen dituela dirudi. Horrela, soilik, lortuko da lortzekotan, eredu berri baterako Trantsizioa zertzea eta bizi dugun espainiar guztien artean kontsentsuatutako Trantsizioaren mitoaz askatzea<sup>71</sup>.

Eta hirugarren eta higa, funtsezkoa, ene aburuz, amnistia garaian gertatu ez zena, ez euskaldunon aldetik behintzat (zeren eta Espainiaren aldetik horixe lortu zutela!) nazioarteko erakundeen babesba lortzea ezinbestekoa izango da. Izan ere, Espainiaren kasuan eta Franco hil ondoren, ustezko Trantsizioaren bukaeran, funtsezkoa izan zen kanpotik eragindako “tutoretza”.

Gogoan dut lehen aipatutako tarte horretan, 1976tik 1978ra bitartean, Helmut Smith, orduko Angela Merkel zena, etorri zela Madrilerara eta, frankisten lemazaina izan zen Adolfo Suárez, berriz, joan zela Europara, toki guztietara, halako ziztu biziko bidaia haietako batean, Vatikanora ere joan zela, aipatu nazioarteko babesaren eske.

Eta bitartean, Espainiako lehendakari ordea izan zena, Alfonso Osorio, joan zela Washingtonera eta elkartu zela Jimmy Carterekin, orduko Obama zena, haien botere politikoaren birmoldatzearen berri ematera.

Ondoren, Suárez joan zen Estatu Batuetara eta, azkenean, Nazio Batuetara. Eta Ameriketako Estatu Batuekin hitzartu ondoren, zer izan zen nazioarte mailan Adolfo Suarezek hitzartu zuena?

Bada, ematen duenez, hitzartu zuen, besteak beste, AEBen base militarren jarraipena bai eta arlo guztietako kolaborazioaren jarraipena ere. Nazioarteari lasaitasuna eman zioten neurriak, hain zuzen.

Hori hitzartuta, Europar Kontseiluak eta Nazio Batuen Elkarteak oniritzia eman zioten frankismoaren Trantsizio prozesuari eta, nonbait, jorratu beharreko bidea onartu zuten.





*Joaneren bihotzak  
eztakit norantza  
emanen duen haren  
lehen esperantza.  
Galdurik dagoela  
daukat segurantza.  
Bertan ezta kabitzen  
broma eta txantza.*



## TXANTXA GUTXI

Orain, orduan ez bezala, euskaldunok zerikasia izan dugu bizipen haietatik, bidea egiten badakigu, jakin, eta nazioarteko erakundeen babesela lantzen ari dela ez dago dudarik. Beraz, nik uste dut aurrerantzean ere Aieteko aldarrikapena lagungarri izango dela horretarako. Baina tarte honetan orain Euskal Herriak burutzeko duen Trantsizio desmitifikatu honetan, zeintzuk izan dira gurean, nolabait, gauzatzen joan diren borroketan, borrokaren irabazleak?

Amnistiaren borroka, esaterako, ez dakit irabazi ote zen. Egia da jende guztia irten zela kartzelatik, baina Aldaluren istorioak orduko metafora edo amnistia horren neurri eskasa eman zigun (Fran Aldalur azken presoak izan zen eta, azkenean, berriro ere berehala harrapatua eta kartzelatua izan zena)<sup>72</sup>. Horrek esan nahi zuen amnistia ez zela euskaldunontzat baliagarria izan guztiz; frankistentzat bai, ordea. Haiek ondo jakin izan zuten horretaz baliatzen. Eta honek Amnistia legearen egokitzapena birplanteatzera eramane behar gaitu<sup>73</sup>.

Orduan, ene ustez behintzat, amnistia baino inportanteago izan zen presoak etxera eramatea lortu izan zela. Eta denok gara lekuko, edo batzuk oraindik ere gogoan daukagu behinik behin.

Beraz, “euskal presoak etxera” aldarria da irabazitako borroka bat. Irabazi baikenuen, ez dugu asmatu, irabazi egingenuen. Bere garaian irabazitakoa, bada, irabazteko daukaguna berriro, halere, baina hori irabazten dakigunez, irabazteko posibilitadea ere badugu, eduki.

Duela gutxi etorri zitzaidan etxera zine ekoizle bat aspaldi (2001ean) itsasoan, barruan mezua zerraman botila aurkitu nuen karira eta adierazi zidan botila Marokotik etorri zela urte batzuetako bidaiaria egin ondoren. Hantxe, esan zidan, ehun botila bota zituzten uretara eta, munduan zehar, hamar bakarrik izan ziren aurkituak, artean nik topatutakoa. Zorte handiko gizona nintzela zioen, halako aurkikuntzak nekez suertatzen baitira bizitzan. Nik, berriz, bere harridurarako, Afrikan botatako eta neronek aurkitutako bigarren botila izan zela hura ihardetsi nion...eta hala da!

Bada, frankismoaren eboluzioaren hasieran presoak kaleratzen ikusi genuen moduan, mota horretako gertakizuna norberaren bizitzan birritan gauzatzea ez litzateke, berez, harrigarria izango.

Nire grazia Joane da ta  
Hau da bigarren aldia  
Neronen bila etorri dela  
Alkatearen goardia  
Orduan kendu zidaten nire  
Bizitzaren erdia  
Urte honetan jakin behar dut  
Nola den urkamendia.

Bigarren borroka izan zen, nik uste dut, Gasteizkoa, Gasteizko 1976koa<sup>74</sup>. Ez nuke esango nik borroka sindikal hutsa izan zenik, nik uste dut langileen borroka izan zela, klase borroka, alegia.

Hura ere ezagutu genuen eta oso gatazka autogestionarioa izan zen, asanbladatan antolatuta behetik gora, eta asanbladan erreprimitua ere bai (hildakoak eta guzti).

Beste gizarte antolaketa bat gauzagarria dela erakutsi zigun. Orduko Kapitalaren aurkako Plataformak deitutakoak ere alderdian oinarriturik ohikoa zen abangoardia politikotik kanpo gauzatu ziren nahiz eta, haietan, zenbat alderdiren presentzia ezin uka (OIC, LKI etab.).

Intsumisioaren borroka ere irabazi zuen Euskal Herriak. Orain hori esateak urrutiko kontua ematen du, behintzat soldaduska egin behar izan genuenok behartuak izan ginelako, baina hori aspaldiko dela dirudi. Dena dela, hori ere irabazita geratu zen, bere argi-ilunak eta guzti, amnistia-aren ekimena izan zen moduan, baina hala gero-ko gizartearen desmilitarizazioari begira nola desobedientzia zibilaren mugimenduari eusteko balio izan zuen.

Hizkuntzaren borroka irabazten ari gara, kostata noski, baina irakaskuntzan batik bat adibideak oso argiak dira aurreko egoeraz erkatuz gero<sup>75</sup>. Baita zezenketaren aurkako borroka edo borroka feminista ere irabazteko bidean daude, ene uste apalean.

Borroka antinuklearra eta egun planteatzen ari den energia berriztagarrien aldeko apustua ere bai. Honek ekarri zuen, adibidez, Deba, Ea, Tuter a eta Peyhoradeko.. zentralen ixtea.

Bazeuden proiektatuta lau-bost zentral nuklear Euskal Herriaren inguruan eta denak bertan behera geratu ziren; aurten Garoña ere itxiko dute. Eta horri aurre, eta ez bakarrik aurre egin, irabazi egin zitzaion klase politiko gehienak babesten zuen planteamendu nuklearzale horri, hori guztia “Costa vasca no nuclear” izeneko batzordearen bidez eta, ondoren, Lemoizen kontrako borroka batuekin<sup>76</sup>.

Portaera elektorala ikusten baldin badugu (Euskal Herrian egine do Euskal Herritik kanpo, Espainia osoan, egin izan diren erreferendumak), eta ikusten baditugu Euskal Herrian eman izan diren aukera eta portaera politiko guztiak, ezberdintasuna da nagusi. Elektoralki begiratuta ere, Euskal Herria ez da Espainia<sup>77</sup>.

Konstituzioari ezetza eman zitzaion eta autonomiari baietza baina oso eskasa, konparatzen baldin badugu, behintzat, Lizarrako Estatutuarekin. Lizarrako Autonomia Estatutuak, izan zuen % 80a gutxienez atzetik edo alde<sup>78</sup>. Eta orain indarrean dagoen Gernikakoak % 57a izan zuen.

Marko instituzional espainiarraren deslegitimazioa begi bistakoa da. Bistako da, halaber, prozesu honetan borroka asko izan direla, eta asko eta asko Euskal Herriak irabaziak. Honen aurrean zein izan da Estatuaren kontakizuna? Trantsizio kon-

tsentsuatuaren mitoarena, hau da, espainiar politikaren egokitzapena historikoa izan dela eta, hemen esan dudanez, Trantsizioaren ideia (ez kontzeptua) metafora mitiko espainiarra izan dela.

Izan ere, zer gertatu zen Franco hil ondoren eta Francoren erregimena aldatzen hasi zenean? Erregimenaren aurkako borrokan, aurretik zeto-rreren belaunaldi berri batek zuzendutako eboluzioa azkartu egin zela, alegia.

Baina instituzioetatik, Historia -nahiz Kaze-taritza fakultateetatik barne, orain beste historia bat kontatu beharra izan dutela konturatzen hasiak dira, hau da, lehen frankismoak kontatzen zuen historiak jada balio ez zuenez, beste kontakizun berri bat asmatu behar izan zuten. Eta, noski, horretarako sortu ziren Victoria Pregoren dokumentalak espainiar telebistan, gero 'A por ellos' Las Ventasen ohikatu zuen berberak eginak, Iñaki Gabilondok, Manu Monterok, Kepa Aulestiak eta enparauek mota horretako narrazioen bidez<sup>79</sup> Trantsizioa bera kontatuz, areago Trantsizioaren harira estatuaren erreforma miretsiz, balizko hausturaren aukera guztiak zapuztuz eta ordukoa mitifikatuz.

Haiek mitifikatutakoari ezarri nahi izan ez dioten kritika eskatu ohi diote, ordea, herri kontakizunari.

Ezker politikotik ere bai, noski, izan ere badaude historialariak trantsizioaren berridazketa egiten dutenak orduko gertaerei oraingo eskemak ezarri nahian<sup>80</sup>, hala nola, Orhipeko Larrainekoek burututako herri antzerkia deitoratzen dute behar

bezain “kritikoak” ez izategatik. Zuberotarrek egin zuten Monzón pastoralaren karira esaten zen hor bazegoela nazionalismoekiko mirespen handiegia, eta noski, pastoral bat izanik, pastoralak mitoz nahiz metaforaz funtzionatzen du!

Salaburu, Arregi, Juaristi, Elorza eta antzekoak, haiek dira orain zabaldu nahi den kontakizun berri baten lumak, eta kontakizun berri horrek, berriro diot, berria behar du, azken frankismoan izan zen bezala, orain artekoak jadanik balio ez duelako. Asmatu behar dute kontakizun berri bat<sup>81</sup>. Eta asmakizun horrek badu bere alde juridikoa, hau da, lehenbizi idazten da prentsan edo historia saiakeretan, eta gero dator legea, bere justizia interdita eta guzti... Adibidez, ‘todo es ETA’ lelotik etorri zen 18/98 sumarioa, baita gainerakoak ere.

Orduan, zeintzuk dira, azkenean, kontakizuna egiten ari direnak zentzu hertsian?

Bada, kazetariak, historialariak eta, erakundeetako intelektualekin batera, orain arte Auzitegi Nazionalaren epaileak izan direnak, Garzón, Marlaska, M<sup>a</sup> Ángela Murillo eta horiek denak.



*Joaneren bihotzak  
dabiltza debalde,  
bersoekin libratu  
nahirik Mugalde.  
Alferrean baitaude  
pobrearen alde,  
Janjani dagokio  
libertate galde.*



## EUSKAL HERRIARI GALDE

Zer daukagu, ordea, aipatu frankismoaren eboluziotik irten ahal izateko eta gure bideari ekinez hasteko?

Esana dut frankismoaren eboluzioaz hitz egingo nuela Trantsizioaz baino gehiago. Eta eboluzio horren ondoren, zer daukagu egiteko?

Bada, oraingo honetan burutzeke dugun bidea zer izango litzateke, Urkulluk dioen moduan, “gure Transizioa”, edo bigarren Trantsizioa, edota hirugarren Trantsizioa?

*Niretzat Euskal Herrian espainiar Trantsizio hura ez da oraindaino gauzatu. Euskal Herrian, funtsean, frankismoak iraun du bere gordintasunean orain arte. Eta daukagun bide politikoan, gure eboluzioari jarraipenik ematekotan, urrats batzuk eman behar ditugu oraindik.*

Lehenengo urratsa, nik defendituko nuke, independentzia Europan. Jaume Lopezek, Pompeu Fabrako irakasleak deitzen duen bezala, Europan ‘independentziaren laugarren olatua’ izango litzateke. Jaume Lopezek eta Pompeu Fabra unibertsi-tateak egin dute ikerketa lan bat, eta aurkeztu egin dute Europar Parlamentuan<sup>82</sup>. Horretan aztertu

dituzte orain arteko hiru olatu independentistak Europan. Bata izan da Lehenengo Mundu Gerratearen ostean, hau da, Inperio handiak desegiten direnean, Inperio Turkiarra eta Inperio Britaniarra. Orduan sortu ziren Europan herrialde berriak.

Bigarren olatua izan zen kolonialismoaren desagertpenarekin, eta batik bat hor ikusten ditugu Europa ekialdean eta Inperio Austrohungariarren ondorioz etab. sortu izan direnak.

Hirugarrena izango litzateke ekialdeko sistema, sistema sozialista deitutakoa, 90eko hamarkadan erortzen denean. Eta 90eko hamarkadan ikusi dugu Europan 19 estatu berri sortu direla XX. mendearen bukaeran.

Eta laugarren olatua oraintxe da etortzeko, zeinean Estatu kontsolidatuetan minoria izandako batzuk lortuko baitute behar adinako kohesio politikoa independentzia planteatzeko. Eta hor dago Eskozia, noski, eta Ipar Irlanda ere badago (irla osoa administrazio barruti bakarrean biltzeko), eta horretarako egingo dituzte erreferendumak, Euskal Herrian eta Katalunian egin daitezkeen moduko herri kontsultak.

Hauek guztiak, Pompeu Fabrakoez aztertzen dutenez, baita Europatik kanpo ere, adibidez, Ameriketan, Quebecen suertatuko dira orain arte dagoeneko suertatu izan diren moduan; baita Groenlandian, Flandrian ere honelako aukerak zabaltzen joango dira<sup>83</sup>.

Nire ustez, hurrengo urteetan Rousseauk duela 300 urte idatzitakoa gogoratzeko, Rousseauk

planteatu baitzuen lehen aldiz Herri Konstituzioaren beharra, nazio kontzientzia hartu duten herriek beren egituratze polikoari ekingo diote.

Rousseuren ekarpena gainerako entziklopediazaleengandik bereizi beharra dago bai edukietan eta baita idazteko maneran ere. Hori ulertzeko gogoratu beharra dago Rousseau Genevan jaio zela (1712an) eta Suitza dugula Europa osoan monarkia inoiz onartu izan ez duen herria. Eskualde ezberdinetako ordezkartzen konfederazioaren bidez sorturiko estatu suitzarra (helveziar konfederazioa) baterakuntza askean oinarritu zen eta horrela izan da bere historia osoan zehar. Rousseuren pentsamendu iraultzailea eta antimonarkikoa, beraz, bizitutako egoera errepublikarrean oinarritu izan dira. Berak proposatutako modernitatea, bada, jatorrizko askatasun naturaletik dator. Horrela ulertu izan ditu hizkuntza (ohikoa ez izan arren musikatik datorrela diosku...), hezkuntza (norbanako naturalaren garapenean datzala dio...) eta gizarte (gizakien arteko hitzarmenetik abiatuta bere aburuz...).

Erdi Aroko gizarte tradizionalaren kontra, modernitatearen izpiritua du hizpide Rousseauk. Bere ikuspuntutik, T. Hobbesen kontra, egoera naturalean hazitako eta hezitako gizaki basatiak ezin du ona eta txarra dena bereizi eta, beraz, ezin da gaiztoa izan. Ildo horretatik, planteamendu erlijiosoen aurka, jatorrizko bekatuak dagoenik ez du uste eta, horren ondorioz, gizakia berez gaiztoa denik ezin du onartu. Aitzitik gizaki naturala ona izanik eta bekatuaren jatorri erlijiosoa arbuiatuz, giza-

kien arteko (sozioen arteko) hitzarmena ikusten du gizartearen (soziedadearen) ardatz, berdintasuna, alegia.

Gizaki bakoitzak era aske batez adostuko du bestekin batera ibili beharra eta horretarako behar bezalako araudiari kasu egitea da garrantzitsua. Gizartearen abiapuntua, bada, gizaki bakoitzaren erabaki askea litzateke, nahiz eta, praktikaren bidez, abiapuntuko egoera hori usteltzen joan izan<sup>84</sup>.

Rousseauk toki batean ikusten du bere gobernu egitasmoaren irudikapena, bere jatorriko herrian, Genevan, eta horregatik bere “ezberdintasunari buruzko azalpen” hau Genevako gobernuari eskaini nahi izan zion, nahiz eta Dijongo Akademiaren sarirako idatzi (ez zuen saria eskuratu...).

Bere ustez estatua ezin da oso handia izan herritarrek behar besteko kontrola eduki ahal izateko eta, ildo horretatik, Suitza bezala Euskal Herria ikusten du arrazoizko gizarte antolatu baten gisa.

Honela idatzi Genevako saiakeragileak:

“Genevako errepublikari

Jaun-andere subirano txit agurgarriak:

Duela 30 urtetik hona omenaldi duin bat eskaini nahi izan diot aberriari edozein herritar jatorrek bere jatorriari egingo lizkiokeen ohoreak emango lizkiokeen bezala eta, beraz, orain arte nire ahaleginek fruiturik eman ez duten arren, honakoaren bidez gizalegezko jardun horri behar bezalako indarrez erantzun nahi izan diot.

Zuen artean jaiotzeaz pozik, nola egin nezakeen gogoeta gizakien artean naturak ezarri duen

berdintasunaz eta gizakiek sortu duten desberdintasunaz, baldin eta estatuan laburbiltzen diren indar eta jakinduria guztiak, gizartearen alde jotzen dutenak, norbanakoaren zorientasunaren eta herri egituraren alde dauden indarrak kontuan hartu gabe? Gobernuaren egituraz egon daitezkeen aholku hoberenak bilatu nahian ia denak zuen eguneroko bizitzan aurkitu ditut eta zuen hiriaren barruan jaio izan ez banintz ere zuek gizarteari erakutsi diozuen munduko herri orori azaldu nahi diot beren alde eta izan daitezkeen kalteak alboratu nahian. Jaiotze-tokia hautatu behar izan banu gizarte mugatu txiki bat aukeratuko nuke”<sup>85</sup>.

Rousseauk berak, enkarguz, Corsicako Konstituzioa idatzi zuen<sup>86</sup>. Noski, Corsicak ez du independentzia lortu, baina, gutxienez, Frantziako Konstituzioa bera baino lehenagokoa izan da Corsicako Konstituzioa, nahiz eta, irla bat izanik ere, egun Frantziak bi departamentutan banatuta eduki.

Ildo beretik, ikusi dugu Espainiak bere Konstituzioan ez duela inondik inora onartzen bide politikorik Euskal Herriak edota Kataluniak behar dituzten garapenak gauzatu ditzaten<sup>87</sup>, baina, aldiz, oso kurioa da Espainiak berak onartu behar duela Europatik datorrena, nahiz eta bere soberaniaren kontra jo. Adibidez, Greziarekin, krisi ekonomikoaren harira, gertatu den gauza bera. Europatik etorri da agindua defizit neurriak hartzeko; beraz, estatu guztiek onartu behar izan dute beren konstituzioetan zorra handiegirik ez izatearena eta Europako estatu guztiek jarri dute hori beren konstituzioetan. Erresuma Batuak ez,

besteak beste, Erresuma Batuan Konstituzioa ere ez baitago eta eurotik at dagoelako. Baina, funtsean, sistema honekin edo planteatutako horrekin konforme ere ezin delako egon.

Halere, Espainiak esaten zuena, hots, Trantsizioaren mitotik eratorritako tabua, bere Konstituzioak ezin zuela aldatu edo ez duela aldatuko Trantsizio garaian erdietsitako ustezko kontsentsua apurtuko zuelakoan, ezeztatu egin du praktikan eta aldatu berri du Europak agindu diolako.

Beraz, nazioartetik datozen aginduena gauza berri bat da, elementu berri bat, kontuan eduki beharrekoa ere herri askapenen bidean.

Eta Pompeu Fabrak egindako ikerketa honetan, berez, bi aukera bereizten dituzte independentziarako: bata da eskaerak aintzakotzat hartuak izaten direnean (normalean hori gerta daiteke Belgikan, gerta daiteke Danimarkan, gerta daiteke Canadian Quebecekin), hori aintzakotzat hartzen denean, hau da, lortzen denean malgutasun minimo batekin konstituzioak eta egitura politikoak berantolatzea, independentziak ez dira gauzatu ohi.

Baina, aitzitik, estatuak ixten direnean erabat edozein birmoldaketa politikoren aurrean, azkenean, hori da faktore gakoa independentzia gauzatzeko. Eta hori da, hain zuzen ere, Espainiak egiten duena Kataluniarekin eta Euskal Herriarekin.

Orduan, nik uste dut gure eboluzioa horra doala, eta hori bai izango litzatekeela benetan mutazio politikoa.



Pentsamendu politiko klasikoaren historian Trantsizioak ekarritako demokraziaren onura ez da, berez, inoiz aintzakotzat hartu. Herodotok lehen aldiz erabili zuen demokrazia hitza, Aristotelesek, adibidez, demokrazia tiraniaren modu batez parekatu zuen<sup>88</sup> eta, Robespierren jakobinismoaren salbuespenaz, pentsamendu modernoak ez du, beraz, demokrazia aldarrikatu ohi espainiar “adiskidetze nazionalak” helburutzat hartu arren.

Kantek berak, esaterako, demokrazia beharrezkoan “res publica”(republika) hobetsi zuen bere idazkietan.

Izan ere, Joseba Sarrionaindiak honi buruz aritzerakoan (*moroak gara behelainoen artean?*)<sup>89</sup>, gogoratu zigun demokrazia ez dela, berez, sustantiboa, aditza baizik.

*Demos* greziarra *populus* erromatarra ez zen neurrian, gure herria espainiar nazioa ote den ezin izan da inoiz askatasunaz behar bezala eztabaidatu, eta botere politikoaren subjektua zeni dagokion ezin izan da ondorioztatu.



*Nire grazia Joane da ta  
Eznaiz isilduko gero  
Aldarri haundiz kanta ta kanta  
Gartzelan sartu ezker  
Burdin artean eztu egiten  
Niretzat batere bero  
Nahizta suaren tormentuekin  
Hor dauden hiru borrero.*



## BORREROAK BADITU...

Aldiz, inolako Trantsiziorik gabe, adierazpen askatasunaren murrizketarekin batera, gainerako askatasun politikoak salbuespen egoeran bizi behar izan ditu gure herriak egundaino.

Ez espainiar ez eta frantziar konstituzioek ez baitigute eman debate politikorako bermerik eta, aldiz, hedabideak itxiz nahiz iritziak jazarriz, Euskal Herriko gizarte mugimenduek, sortzaileek edota norbanakoek erabakitzeko eskubideaz debatitzeko bilguneak aurkeztu eta bideratu izan nahi dituzten guztietan debekua eta errepresioa besterik ez dute aurkitu.

Mundua berrantolatzen ari da, ordea. Olatu politiko berrien aurrean euskal herritarrok gure pentsamendua eta praktika politikoak ere eguneratu behar ditugu. Kanean eta idazkietan, unibertsi-tateetan eta komunikabideetan. Demokraziaren aditza eta adiera hasi behar dugu erabiltzen gurean. Gertukoekin batera, hasieran, adigogorren aurrean gero eta adimentsu beti. Herri hau, Kantek esango lukeen modura, honezkero adin nagusikoa baita.

Beraz, egun posible al zaigu kantiar ilustrazioaren egitasmu politikoari eustea haren oinarri epis-

temologikoari agerrarazi zaizkion kontrako arrazoi jakobinoei erreparatu gabe?

Zeren eta, Kantengandik heredaturiko ustezko gizabanako unitario bezain unibertsala eta haren subjektibitatea dugu, hain zuzen, bai azken Wittegensteinek baita Gadamerren hermeneutikak ere kolokan ezarri zutena.

Azken horrek, adididez, kantiar ilustrazioaren *epistemeren* partez Aristotelesen *phronesis* erabiltzea proposatu zuen, *ethosen* arabera gizarte arrazionalitatea aldarrikatuz.

*Phronesis*, Aristotelesen arabera behintzat<sup>90</sup>, jakintza praktikoa edo zuhurtasuna litzateke baina, ezaguera hutsa ez bezala, *phronesis* gizarte trebetasuna da, egoerak hobetze bidean noiz eta nola lan egin beharra dagoen jakiteko balio duena.

Horrela, politika aferetan (historiak ekarritako gizarte arazoetan uler dezagun...), arrazoi unibertsala erabili beharrean tokian tokiko kultur bizipenetan oin hartzen duen logika praktikora eramatea ahalbideratuko luke *phronesis* delakoak.

Ildo beretik, Paul Ricoeurrek<sup>91</sup> zientzian eta praktikan erabili beharreko ezaguerak desberdinak direla dio baina, erlatibismo faltsutik urrun, arrazoi praktikoa, etikan, politikan nahiz gizarte aferetan eskua hartzeko logika zehatzak egon, badaudela diosku, justizia interdita gaintzeko norbere tradizio kulturalan oinarritzen direnak, alegia. Haien bila abian gaude eta, hala *justizia transizionala* nola *egien batzordeak* ere horretarako lagungarriak izan daitezke.

Badago ordea, funts narrastien bat, idazlumak eta guzti, historia idatzi egiten dutenak hura gerta ez dadin.

Eta orain Euskal Herrian suertatzen ari den ziklo aldaketan, hori gertatzen ari baita memento honetan, hain zuzen ere, kontakizun berria behar dela nabarmendu da. Gauza bera gertatu zen Franco hil ondorengo urteetan, beren kontakizuna berritu behar izan zutenean. Orain, asmatu behar dute argumentua, narrazio guztiek beren argumentua baitute: historia eta argudioak. Baina problema da ez daukatela ez argumenturik eta ez argudiorik kontakizun berria planteatzeko.





*Joaneren bihotzak  
daude desorduan  
kontsolamentu gabe,  
damaren moduan:  
“Nor da tristeagoa,  
“ni baino, munduan?  
“Zergatik sartu nintzen  
“egungo gudan?”*



## OIRAINGO GUDA

‘Nola irabazi narrazioaren borroka?’ esaten dute, baina ez da inongo narrazio borroka irabazi beharrik, egin beharra dagoena da bideak eman eta onartu adierazpen askatasun nahikoa bakoitzak bere narrazioa zabaldu eta sakondu ahal izateko. Eta hori da ukatu egin digutena historikoki<sup>92</sup>.

Hau da, ordea, memento honetan ere ukatu egiten zaiguna<sup>93</sup>. Beraz, gure narrazioa egin ahal izateko ez dugun adierazpen askatasun nahiko hori da eskuratu behar duguna. Horrekin batera, orain arte kontatzerik izan ez direnak kontatzeko garaia iritsiko da<sup>94</sup>.

Hori gerta ez dadin eta, bide batez, egungo eztabaida politikoa eragozteko, herrien independen-tziaren aukera zapuzteko, “Patriotismo constitucional” kontzeptu habermastarraren atzean ezkuta-tzen direnek haien ideiak (ez kontzeptuak) besterik ez dituzte ikusten. El País egunkaria, adibidez, “diario global en español” omen da autodefinizioz, “español” hizkuntza espainiar Konstituzioan ez da-goela nabarmen izan arren.

Espanian, Trantsizioaren mitoaren bidez eza-rritako Konstituzioaren tabuak eragozten duen adierazpen askatasunaren falta azaltzea izan da nik,

nire motzean, egin nahi izan dudana izkribu honekin.

“*Ni naiz, ni neroni, nire idazkien funtsa*” adierazi zuen Michel Montaignek 1580an, bere “*Entseguak*” argitaratzearekin batera. Egia da saiakera literatura ez zuela Montaignek bakarrik sortu. Ildo horretatik, adibidez, idatzi zuen John Lockek bere “*Giza ezaguerari buruzko entsegua*” eta egia da, halaber, entsegugile adina saiakera mota dagoela. Azkenik eta gero, “filogenia ontogenian” datza-eta.

Aurreko batean, errepide ondoko mendi bi-dezidor batetik nenbilarik, Edward Hopper moduko margolaria ikusi nuen lanean, margotzen ari zena auto gainean zuela.

Irudiak begiratzera gerturatu nintzen eta, haietan irudikatutakoa gure aurrean zegoen paisaia ez zela agertzen konturatu nintzen. Margotutakoari erreparatuz, non dago zubia? galdetu nion, izan ere aurrean ez bainuen inongo zubirik ikusten, nahiz eta berak marraztutako koadroaren erdian bazegoen bat; berak errealitatean zubia oraindik ez zegoela arrapostu zidan.

Nik, neronek, ezin izango nuke saiakera hau burutu Hans Blumenbergen *La legibilidad del mundo* irakurri ez banu edo, literaturan, Koldo Izagirrenen *Egarri egunak portualdean* leitu gabe, zeren eta literaturaren bidez jendeak kontatzen duenaz jabetzeko erreferentziak ez baitira bakarrik ekonomikoak, administratiboak edo errepresiboak, sortzaileek kontatzen digutena baizik, biobibliografiak eta biografiak barne, biopolitika sasoian...

Bazzanaren liburua *Mitos y Mentiras de la Transición* oso interesgarria izan zait ikusteko Transizioaren ustezko adostasuna ez zela inondik inora hala suertatu.

Canok idatzitako *Twist* nobela, aipatu Izagirreraren *Egarri egunak portualdean* bezainbeste, ariketa literarioak dira, zeinetan ez dagoen herri honen historiaren sinplifikaziorik baina bai, ordea, bizitza ulertzen laguntzeko metafora oso bortitzak, kontzeptuak ez diren ideiak, mitoak edota desioak pentsatu ahal izateko aukera ematen dutenak.

Beraz, bistan da. Guk ezin dugu sinetsi Garzónen ‘todo es ETA’; gure kontakizuna jakin egin behar dugu behar den bezala gorpuzten eta, ildo horretatik, kanpotik nola ikusten gaituzten saiatu beharra dago eskuratzen.

Entsegu hau burutzeko, berriz, ezinbestekoa suertatu zait Ferran Requejorekin hitz egin ahal izatea...<sup>95</sup>

Baita Gabriel Arestiren “Zuzenbide Debe-katua”z gozatzea ere...

Berak ez zuen Lizardi Saria lortu baina, horren harira, honako gogoeta utzi zigun idatzita:

*“Eta guk lortu behar dugun saria badakizu zein den? Beste edonolako sariak, teiltupeko sariak ar-buiatu gaberik, egiazko literatura gure hizkuntzan sortzea”.*



## OHARRAK

- <sup>1</sup> Blumenberg, H (2004): *El mito y el concepto de realidad*. Herder.Barcelona.
- <sup>2</sup> Blumenberg, H (2003): *Conceptos en historias*. Síntesis. Madrid.
- <sup>3</sup> Lyotard, F (1979): *La Condition postmoderne: Rapport sur le savoir*. Minuit. Paris.
- <sup>4</sup> Villwock, J. (1999): «Die grossen Philosophen des 20. Jahrhunderts». 76/80 or. B.Lutz DTV. Munich.
- <sup>5</sup> Aiestaran, Ignazio (2010): *Walter Benjaminen Aingerua Gernikako Bonbardaketatik*. Elkar. Donostia.
- <sup>6</sup> [www.rtve.es/alacarta/.../la-transicion/transicion.../7381;recursostic.educacion.es/comunicacion/media/.../television/.../pag6.ht](http://www.rtve.es/alacarta/.../la-transicion/transicion.../7381;recursostic.educacion.es/comunicacion/media/.../television/.../pag6.ht)  
[www.slideshare.net/TEMERIN/tve-y-la-transicion](http://www.slideshare.net/TEMERIN/tve-y-la-transicion)  
[www.uem.es/es/noticias/1168](http://www.uem.es/es/noticias/1168)
- <sup>7</sup> [blogs.ua.es/documentales/peliculastransicionespanola/](http://blogs.ua.es/documentales/peliculastransicionespanola/)
- <sup>8</sup> <http://www.elmundo.es/elmundo/2012/08/30paisvasco>.  
Urkullu: 'En Euskadi tenemos que hacer nuestra Transición'
- <sup>9</sup> Taibo C. (2012): *La transición, milagro y quiebra*. La catarata. Madrid.
- <sup>10</sup> Nik, Trantsizioaren orde, proposatuko dudana epearen parte bati "frankismo berantiarra" deitu izan zaio baina nik azalduko dudana sailkapenean ohiko trantsizio epeaz harago joaten da ([www.publico.es/.../los-luchadores-del-franquismo-tardio-vuelven-a-j...](http://www.publico.es/.../los-luchadores-del-franquismo-tardio-vuelven-a-j...))

- <sup>11</sup> Badiou, Alain (2009): *Éloge de l'amour*. Flammarion. Paris.

Aristotelesen bidetik Badiouk dio maitasuna eraldaketa dela berez, zeinak, pertsona oro on bihurtzen baititu eta, zenbait gizarte aldaketatan, jende guztia maitatze egoerara egokitu egiten dela eta, ondorioz, denak lagun, gizarte osoa ona izaten hasten dela garai haietan... Arestik, berriz, betiko euskal gizartea argia zela zioen: ezker aldean ezkerrekoak eta eskuinean eskuinekoak (Bilboko itsasadarren hegiez ari zen). Txillardegik, sasoi hura gogoan, bat-batean gizartea horrenbeste aldatu ezen espainiarrek bi esku izatetik, eskuina eta ezkerrekoak, beste bi izatera pasa zela zioskun, ezkerrekoak eta muturreko ezkerrekoak, alta, aldaketarekin batera eskuin politikoa desagertu zela zioen. Oraindik oso erabilia da espainiarren artean “soy de izquierdas” esatea, ezkerreko definizio teorikoa baino botere praktikaren arabera ulertu behar bada ere.

- <sup>12</sup> Marcelino Camacho aurkitu nuen Carabanchelen 1976an; Cuban, hamar urte beranduago, eta, azkenik, Pragan 1989an, Europako ekialdean, orduko Txekoslovakian barne, gobernu komunistak erortzen ari zirelarik... Camacho, M (1976) *Charlas en la prisión*. Laia. Barcelona.
- <sup>13</sup> Bazzana, Bénédicte André (2006): *Mitos y mentiras de la Transición*, El Viejo Topo, Barcelona
- <sup>14</sup> Díaz, Elias (1987): *La transición democrática*. EUEDEMA Universidad. Madrid.
- <sup>15</sup> Ysàs, P (1994): “Democracia y autonomía en la transición española”. *Ayer*. 15. 77/107.
- <sup>16</sup> Vilar, P. (1988): *Historia, nación y nacionalismo*. Hiru. Hondarribia.
- <sup>17</sup> Nuñez, L. (1995): *La razón vasca*. Txalaparta. Tafalla.
- <sup>18</sup> Pablo, S (2005): “Silencio roto. El franquismo y la transición en la historiografía vasco-navarra”. *Vasconia*. 34. 383/406.



- <sup>19</sup> Ikus Antxon Ezeizak “Konstituzioaren erreferendunaz” burutu zuen *ikuska* dokumentala.
- <sup>20</sup> Gonzalez, F; Guerra, A. (1977): P.S.O.E. Albia. Bilbao.
- <sup>21</sup> “Asalto al centralismo” (1976). Avance/Intervención aldizkaria. Barcelona.
- <sup>22</sup> “Antonio Cubillo Guantxeak berpiztu zituen” Berria. 2012-12-11. 16. or.
- <sup>23</sup> Díaz, Elias (1987): *La transición democrática*. EUDEMA universidad. Madrid.
- <sup>24</sup> Ysàs, P. (1994): “Democracia y autonomía en la transición española”. *Ayer*. 15. 77/107.
- <sup>25</sup> Landa, K. (2012): “Gabriel Aresti: nazionalismo eta sozialismoa” Bilbon eta Euskal Herrian” in Nazionalismo ikertuz 1.kongresua. Bilbo. Aktak argitaratuak.
- <sup>26</sup> Rodriguez, F. (2011): “Arestiren zuzenbide debekatuaren poetika” in *Berban gora iturria. Eako poesia egunak 2011*. Bideo grabazioan.
- <sup>27</sup> “Zuzenbide debekatua” Zarautzen izan zen aurkeztua Lizardi sarirako baina Orixe suertatu zen irabazle... horretaz, Joxe Azurmendiri idatzitako gutunean (1961ko maiatzaren 27an) kexu zaldu zen Aresti.  
 “ Nire karta batean agindu eta igarri nizun bezala, Lizardi-saria Orixerri emana izan zaio. Komentariorik ez. Haren lizarditasunagatik, noski. Komentariorik ez. Ez-tut aurrerantzean euskal bertso bat ere eskribituko. Hau hemen eta Patagonian dakite. Asperkundearen aitzakia-ekin presentatzen dut dimisioa.”  
*Gutunak/Arestiren literatur lanak*. 149 or. Susa. Zarautz.
- <sup>28</sup> Sudupe, P. (2012): “Abertzaletasuna bitan banatu zen eta hala darrai!” Bilbon eta Euskal Herrian” in Nazionalismoa ikertuz 1. kongresua. Bilbo. Aktak argitaratuak.
- <sup>29</sup> Martínez Alier, J. (2011): “Crítica de la transición en los cuadernos de Ruedo Ibérico”. *Le monde diplomatique*. 24/12/11

- <sup>30</sup> Egaña, I. (1977): “A 20 años de la mudanza española. Retrato de la transición”. *Ezpala*. 5. 12/22 or.
- <sup>31</sup> Foucault. M. (2004): *Naissance de la biopolitique: Cours au collège de France, 1978-1979*. Seuil. Paris.
- <sup>32</sup> Deleuze, G. ABC, <http://www.youtube.com/watch?v=Ed-bVLIBDwY>
- <sup>33</sup> BBAA. (2012): *Zamorako apaiz-kartzela. Eliza eta Estatuaren presondegia. 1968-1976*. Txalaparta. Tafalla.  
Orduko presoak: Xabier Amuriza, Juan Mari Arregi, Iñaki Aurtenetxe, Periko Berriategortua, Patxi Bilbao, Vicente Couce, Lukax Dorronsoro, Miel Elustondo, Jon Etxabe, Eduard Fornes, Alberto Gabikagojeaskoa, Mariano Gamo, Paco Garcia Salve, Felipe Izagirre, Julen Kalzada, Pablo Muñoz, Josu Naberan, Felix Placer, Martin Orbe, Periko Solabarria, Imanol Oruemazaga, Jose Angel Ubieta, Angel Zelaieta, Mikel Zuazabeitia eta Juan Mari Zulaika.
- <sup>34</sup> [http://www.youtube.com/v/M6x4KDhSynU&hl=enUS&feature=player\\_embedded&version=3](http://www.youtube.com/v/M6x4KDhSynU&hl=enUS&feature=player_embedded&version=3)</param>  
<param
- <sup>35</sup> Adell Argilés. R. (1989): Tesis Doctoral: “La transición política en la calle: manifestaciones de grupos y masas en Madrid (1975/1986)”. Bibliografía en página web:<http://www.uned.es/dpto-sociologia-I/Adell/webbramon.htm>
- <sup>36</sup> El País 2012-09-19.
- <sup>37</sup> Zabaleta, P. (2012): “De cuando Carrillo rompió la Ruptura” in GARA, 2012/09/22.
- <sup>38</sup> Viñas, A; Hernández Sánchez, F; Ledesma, J.L; Preston, P. (2012): “Puntualizaciones sobre Paracuellos” in El País, 2012/09/21.
- <sup>39</sup> [www.youtube.com/watch?v=ivnSCzozgjo](http://www.youtube.com/watch?v=ivnSCzozgjo)
- <sup>40</sup> 1989an, Madrilgo Hotel Alcalako atentatuan, esaterako, Josu Muguruza erahilez.
- <sup>41</sup> Lefebvre. H. (2009): *El marxismo*. Davinci. Barcelona.

- <sup>42</sup> Chomsky, N. (2004): *La objetividad y el pensamiento liberal*. Península. Barcelona.
- <sup>43</sup> Arbelbide, X. (2009): “Arjeliako gerra eta Euskal Herria”. <http://www.euskonews.com/0504zbnk/gaia50402eu.html>
- <sup>44</sup> BBAA. (1998) *Liburu Gorria. Euskerazaintza*.
- <sup>45</sup> Rodríguez, F. (2012): *Txillardegí*. Erein.
- <sup>46</sup> Kintana, J. (1998): “Nazionalismoaren historia eta ideología”. *Uztaro* 26.
- <sup>47</sup> Txillardegí (1984): *Euskal Herria helburu*. Elkar. Donostia.
- <sup>48</sup> Oiartzabal, A. (2011): “Begoña Urrozen afera” in *Berria* 2011ko otsailaren 20an.
- <sup>49</sup> Estévez, X. (2010): El Galeuzca: Una solidaridad trinacional inacabada, in *Euskonews...*
- <sup>50</sup> Arrizabalaga, J.; Murias, A. (1997): *Autonomoekin solasean*. Txalaparta. Tafalla.
- <sup>51</sup> Renobales, E. (2010): “La ruptura de Txiberta. Lo que no pudo ser”. *IPES*. Bilbao.
- <sup>52</sup> Urrutia, Tx. (2006): *Alcaldes en Lucha: El Grupo de Bergara en la Transición, 1975-1979*. Txalaparta. Tafalla.
- <sup>53</sup> Kleim, N. (2010): *La doctrina del shock*. Paidós. Barcelona
- <sup>54</sup> Celaya, G. (1961): *Rapsodia eúskara*, Biblioteca Vascongada de Amigos del País, San Sebastián.
- <sup>55</sup> Joxe Azurmendi karta bat, in *Gutunak/Arestiren literatura lanak*. Susa. Zarautz.
- <sup>56</sup> Blumenberg, H. (2002). *La posibilidad de comprenderse*. Síntesis. Madrid.
- <sup>57</sup> Rodríguez, F. (2011). *Nacionalismo y Educación*. Delta Universitaria. Madrid.
- <sup>58</sup> Muniesa, B. (2005): *Dictadura y transición: La España lampedusiana*, Volumen 1. 169. or. Univ. de Barcelona. Barcelona.

- <sup>59</sup> Sola, R. “Justicia transicional, la llave del postconflicto”. *Gara*-n idatzitako artikulua 2012/03/05.
- <sup>60</sup> Rodriguez, F. (2012): *Biktimari agurka*. Utriusque Vasconiae. Donostia.
- <sup>61</sup> Ibañez. J. (1988): “Cuantitativo, cualitativo” in *Terminología científica-social*. Anthropos, Barcelona. 218-233 or. Non, gizarte sistema poetikoez hitz egiten duen, zurruntasunetik at, egoeraren araberrako giza harreman eredu desberdinak sortze bidean.
- <sup>62</sup> Nahiz eta 2008tik NBEk frankismoarenak gizateriaren aurkako krimen gisa izendatua izan, “munduan beste asko bezala” Ivan, A (2012) *Berria* 2012/09/20.
- <sup>63</sup> Amin, S. (1974): *El desarrollo desigual, ensayo sobre las formaciones sociales del capitalismo periférico*. Libros de confrontación. Barcelona.
- <sup>64</sup> Goikoetxea. J. (2012): “Ni comuna catalana ni condado vasco” in [www.naif.info/eu/iritzia/articulos](http://www.naif.info/eu/iritzia/articulos)
- <sup>65</sup> Xamar (2008): *Los vascos: su lengua a través de la historia*. Pamiela. Iruña.
- <sup>66</sup> Junquera, N. (2012): “Francisco Franco sienta en el banquillo a un escocés” *El País* 2012-09-19. Lugon, Negegeira de Muñiz herrian Clifford Torrentsek erositako etxetik falangearen ikurra zeraman honako oroigarria kendu zuen: “Reinando Francisco Franco y siendo alcalde D. José María López se inauguró este día 24-5-1953” Oraingo PSOEko alkateak jarri dio salaketa... Clifford Torrents espainiar errepublikaren aldeko borrokalari baten semea da.
- <sup>67</sup> Egaña. I. (1977): “A 20 años de la mudanza española. Retrato de la transición” *Ezpala*. 5. 12/22 or.
- <sup>68</sup> (GAL: asesinos de estado), un documental que aquí no veremos, in [noticiasdenavarra.com](http://noticiasdenavarra.com) eta [http://www.gara.net/azkenak/03/329726/e ...ara-actuar](http://www.gara.net/azkenak/03/329726/e...ara-actuar); Frantziako telebistak atera du honi buruzko erreportajea.

- <sup>69</sup> Alonso, F. (2004): *Por qué luchamos los vascos*. Txalaparta. Tafalla.
- <sup>70</sup> Ildo honetatik datoz egun, amnistia legearen egokitzape-nerako eskariak (ikus eranskina)
- <sup>71</sup> Requejo, F. (2012): Politika Zientzietan katedraduna «Bidea egitera goaz, eta unereren batean legetatik kanpo aritu beharko dugu» 2012-09-15. Berria.
- <sup>72</sup> Fran Aldalur-en istorioa in [info@euskalmemoria.com](mailto:info@euskalmemoria.com)
- <sup>73</sup> Hori dela eta Frankismoaren Krimenen aurkako eus- kal Plataforma ari da udaletxe desberdinetan mozioak aurkezten orduko injustiziak kitatu daitezzen eskatzen. Haien oinarrian NBEk 2008ko ebazpena dago, zeinak frankismoak eragindakoa legez inola ere iraungitu ezin den genozidio gisa izendatu duen.
- <sup>74</sup> [http://paperekoa.berria.info/harian/2009-07-07/008/003/1976koa\\_gogoan\\_2006koa\\_epaitegian.htm](http://paperekoa.berria.info/harian/2009-07-07/008/003/1976koa_gogoan_2006koa_epaitegian.htm)
- <sup>75</sup> [http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/6820.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/6820.pdf)
- <sup>76</sup> Allende, J. (2012): *La alternativa nuclear*. Erein.
- <sup>77</sup> Nuñez, L. (1995): *La razón vasca*. Txalaparta. Tafalla.
- <sup>78</sup> <http://www.puntubi.com/dokumentuak/lizarrakoestatutua.htm>
- <sup>79</sup> Wikipedian, gaztelerazko edizioan, gai politiko hauek begiratzea besterik ez dago ematen den bertsio mota ikusi ahal izateko...
- <sup>80</sup> Duplà, A. (2012): “Monzón” in *Hika* aldizkaria.
- <sup>81</sup> Rodríguez, F. (2012): “Narrazioaren narrastiak” in *Berria* 2011/09/30.
- <sup>82</sup> [http://www.idees.net/Article/\\_yMB\\_HYzag4OcN-rdXDBiLck7Aa234Q7eQLeQfWO\\_8Do](http://www.idees.net/Article/_yMB_HYzag4OcN-rdXDBiLck7Aa234Q7eQLeQfWO_8Do)
- <sup>83</sup> Lopez, J. (2010): “New states in Europe?” in *Catalan International View*, 7.
- <sup>84</sup> Rousseau, J.J. (1996): *Instruction d'un pere a son fils sur la maniere de se conduire dans le monde*. X. Palaciosen

argitarapena. Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua. Gasteiz. (euskarazko bertsioa Jokin Apalategik burutua)

- <sup>85</sup> Rousseau, J.J. (1755): “Gizakien arteko ezberdintasunaren jatorriaz azalpena”. Itzulpena nirea da.
- <sup>86</sup> Rousseau, J.J. (1765): “Constitution pour la Corse” eta “Considérations sur le Gouvernement de Pologne” (1772).
- <sup>87</sup> “La senda federal”. Editorial de el País, 2012-09-20.
- <sup>88</sup> Sartori, G. (2005): *Elementos de Teoría política*. Alianza. Madrid.
- <sup>89</sup> Sarrionandia, J. (2010): *Moroak gara behelainoen artean?* Pamiela. Iruñea.
- <sup>90</sup> Aristóteles (2001): *Ética a Nicómaco*. José Luis Calvo Martínezen itzulpena. Alianza. Madrid.
- <sup>91</sup> Ricoeur, P. (1986): *Du texte à l'action*. Seuil. Paris.
- <sup>92</sup> “Barrura begiratzeko leihoak” filma lekuko.
- <sup>93</sup> Vidal-Folch, X. (2012): “La independencia no existe” in *El País* 2012/09/25.
- <sup>94</sup> Žižek, S. (2012): *Bienvenidos a tiempos interesantes*. Txalaparta. Tafalla.
- <sup>95</sup> <http://www.ferranrequejo.cat/>

## OINARRIKO BIBLIOGRAFIA

- ALLENDE, J. (2011): *La alternativa nuclear*. Erein.
- AMIN, S (1974): *El desarrollo desigual, ensayo sobre las formaciones sociales del capitalismo periférico*. Libros de confrontación. Barcelona.
- ARANA, A (1997): *El problema español*. Hiru.
- ARISTÓTELES (2001): *Ética a Nicómaco*. José Luis Calvo Martínez en itzulpena. Alianza. Madrid,
- ARRIETA, J.A. (2008): *Terra Sigillata*. Txalaparta.
- BARANDIARAN, G. (2011): *Errotik*. Susa.
- BAZZANA, B.A.(2006): *Mitos y mentiras de la transición*. El Viejo Topo.
- BLUMENBERG, H (2003): *Conceptos en historias*. Síntesis. Madrid.
- EGAÑA, I. (1997): “Mudanza”. *Ezpala*. 5. 12/21.
- IZAGIRRE, K. (2011): *Egarri egunak portualdean*. Susa.
- PABLO, S. (2005): “Silencio roto. El franquismo y la transición en la historiografía vasco-navarra”, *Vasconia*. 34. 383/406.
- RICOEUR, P. (1986): *Du texte à l’action*. Seuil. Paris.
- SARRIONAINDIA, J.(2010): *Moroak gara behelaino artean?* Pamiela. Iruñea.

- SARTORI, G.(2005): *Elementos de Teoría política*. Alianza. Madrid.
- TAIBO, C. (2012): *La Transición, milagro y quiebra*. La catarata. Madrid.
- VILAR, P (1998): *Historia, nación y nacionalismo*. Hiru.
- YSÀS, P.(1994): “Democracia y autonomía en la transición española”. *Ayer*. 15. 77/107.
- ZABALA, J.P. (2000): *Agur Euzkadi*. Susa
- ZUBIAGA, M (1999): “La nueva desobediencia”. *Ezpala*. 12. 12/18.



## ERANSKINA

### **Donostiako Udaletxearen Osoko Bilkurara**

*Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak*, idatzi honen beheko partean agertzen diren Elkarteez osatutakoa, egungo legediari jarraituz Gernikako Udaletxearen Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo Mozioaren onarpena.

Donostian, 2012.eko Irailaren .....a.

#### ARRAZOIEN AZALPENA

1936.eko Uztailean Francok burututako altxamendu militar-faxistak Errepublikaren bidezko Gobernua eta Gobernu Autonomiko guztiak ezabatu zituen, industri, nekazal eta finantza oligarkiaren laguntzarekin, Elizaren agintari eta partaideek tar-teko, eta erregimen politiko totalitario bat ezarri zuen askatasunaren, justizia sozialaren eta Estatuko Nazioen eta Herrien eskubideen aldeko pertsona ororen suntsitze fisikoa eraginaz.

Diktadura hura, ideologikoki “nacional-catolicismo” delakoaren zutabeetan finkatua, armadak, finantza eta industria oligarkiak, lur-jabeen klaseak eta Elizak hurrengoko berrogei urteetan mantendu zuten errepresio bortitza eta jeneralizatuaren bitartez edozein oposizio saihestuaz, torturak, “paseoak”, heriotza-zigorak, eta gainontzeko kondenak jarriaz

erregimenaren aldeko epaileen bitartez, atxilotuak inongo defentsa aukerarik izan gabe.

Francoren heriotzaren ondoren, herriaren borrokek eta presio internazionalak frankistak behartu zituzten nolabaiteko aldaketa batzuk egitera, “trantsizio politikoa” delakoaren babesarekin, zeinek inpunitate guztia bermatzen zien 1977.eko Amnistia Legea medio. prozedura guzti honetan botere politikoa, judiziala, ekonomikoa, militarra eta errepresiboa mantentzea lortu zuten, frankismoaren zutabe nagusienak bermatuaz: Estatuaren batasuna, Kapitalismoaren jabetza eta lehen-tasuna edozein interes sozialetik gain, eta elizaren estatus pribilegiatua.

“Trantsizio” horretako urteetan torturak eta erailketak jarraitu zuten poliziaren eta para-polizien esku, eta baita manifestazioen errepresio bortitzak ere, estatus hori mantentzeko asmoz. Egun, herrien autodeterminazioaren aurkako mantentzen den jarrera, Ibarretxeri, alderdi sozialistari eta ezker abertzaleko partaideei epaiketa saiakera ezaguna bezalakoa; erakunde politikoak legez-kanpo lagatzea; egunkari nahiz irratien itxierak; Entzutegi Nazionalaren epaiketa antzuak; eta abar luze batek zera adierazten du nabarmen: diktadoreak utzi zuen “lotua eta ondo lotua”k hor dirauela Borbon monarkiaren bitartez.

Baina “trantsizio” hartatik hogeita hamabost urte geroago argentinari epaile batek frankismoaren aurkako kereila bat onartu du genozidio eta gizateriaren aurkako delituegatik, preskriba-ezinak eta inongo “azken puntuko legeak” amnistiatzerik ezin dituenak. Nahiz eta erakunde internazionaletik izan, kereila honek frankismoaren zutabeak zartatzen

hasia du, hainbat memoriaren aldeko erakundeek urteetan zehar ahalegintzen ari garen bezala. Beraz, Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren aldeko une garrantzitsu baten aurrean gaude, milaka eta milaka errepresaliatuen duintasuna lortzeko ahalmen berezia bilakatuaz.

Esandako guzti honegatik, *Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak*, Altafaylla Kultur Taldea, CNT Euskal Herria, Durango 1936 Kultur Elkarte, Euskal Memoria Fundazioa, Eusko Lurra Fundazioa, Egiari Zor Fundazioa, Garraxika Taldea, Gernika Batzordea, Goldatu Elkarte, Intxorta 1937 Kultur Elkarte, Lau Haitzetara Gogoan Elkarte, martxoak 3 Elkarte, Oroituz eta Sare Antifaxista Elkarteek osatzen dutena, ondoko proposamena luzatzen dizue:

#### MOZIOA

1.- *Donostiako Udaletxeak 1931.ean bide onez burututako errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista kondenatzen du.*

2.- *Donostiako Udaletxeak gerora ezarritako diktadura erregimena kondenatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuegatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka.*

3.- *Donostiako udaletxeak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta Elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu.*

4.- Donostiako Udaletxeak 1977.eko Amnistia Legea salatzen du, frankismoaren inpunitatea eragin zuelako eta inongo garbiketarik egin ez zutelako botere estrukturetan, batez ere diktaduraren arlo juridiko eta errepresiboetan (armada, polizia eta guardia zibila).

5.- Donostiako Udaletxeak 1977.eko Amnistia Legea ezabatzea eskatzen du, eta altxamendu militarrikatik, erregimen frankistatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenei bere eskubideak bermatzeko ahaleginetan ardura hartuko du, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoek egiten ari diren historiaren errelato faltsua salatuaz; JUSTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea saihestuaz eta frankisten erantzukizuna exijituaz; milaka eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea eskatzen; eta, azkenik, gizarteak behar dituen aldaketa sozio-ekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA-EZINAREN BERMEA ezartzeko.

6.- Ildo honetan, Donostiako Udaletxeak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epaitegian, 4591/10 Kereilari, zein Maria Servini de Cubria Epaileak daraman genozidioaren eta gizateriaren aurkako frankismoaren krimenegatik.

7.- Donostiako Udaletxeak hiritar orori eskatzen dio Kereila honen alde egin dezan, bai kereilatzaile gisa errepresiorik sufritu duenak, berak edo bere familiakoren batek; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuaz.

Donostiako Udaletxeko Osoko Bilkurak deklaratzeko duena 2012.eko Irailaren .....a.

Instituzio horretarako hautatuta dauden partaide guztiak animatzen ditugu Frankismoaren Aurkako Kanpaina eta Kereila honekin bat egin dezaten goiko Mozioa onartuaz.

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataforma

*Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo*

- Altafaylla Kultur Taldea. ([www.altafaylla.com](http://www.altafaylla.com))
- CNT Euskal Herria.
- Durango 1936 Kultur Elkartea.
- Euskal Memoria Fundazioa. ([www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com))
- Eusko Lurra Fundazioa.
- Egiari Zor Fundazioa. ([www.egiarizor.org](http://www.egiarizor.org))
- Garraxika Taldea ([www.turrune.wordpress.com](http://www.turrune.wordpress.com))
- Gernika Batzordea. ([www.gernika2012.net](http://www.gernika2012.net))
- Goldatu Elkartea. ([www.goldatu.or](http://www.goldatu.or)) Oficina Virtual para la Querella.
- Intxorta 1937 Kultur Elkartea. ([www.intxorta.org](http://www.intxorta.org))
- Lau Haizetara Gogoan Elkartea. ([www.lau-haizetara-gogoan.blogspot.com](http://www.lau-haizetara-gogoan.blogspot.com))
- Martxoak 3 Elkartea. ([www.martxoak3.org](http://www.martxoak3.org))
- Oroituz Andoain 1936.
- Sare Antifaxista. ([sareantifaxista@gmail.com](mailto:sareantifaxista@gmail.com))



# *IDEIAK*

## BILDUMA

1. Fito Rodriguez. *Jerusalem. Xalimen hiria*. 2008.
2. Eneko Bidegain: *Gerla Handia, muga sakona*. 2009.
3. Fito Rodriguez: *Buru ta zioak*. 2010.
4. Jokin Apalategi: *Euskal Herriaren eman-tzipazioaz*. 2013.
5. Fito Rodriguez: *Justizia Interditaren Poetika*. 2013.